

...eta **kitto!**

800

zkoa. 2012-III-30


ASTEKARIA



Udaberria gurpil gainean dator

Zure bizikletarendako **ZENTRO TEKNIKOA**

700 metro **ZIKLISMOARI ESKAINIAK**



POLAR

MERIDA

SHIMANO

MAVIC

GDR



Bisita Barrena, 32 (Eibar)
gaitzazu! 943 121895



RPS 04/02

IRAZABAL

clínica dental

**Antonio Murillo
doktorea**

- PERIODONTZIA
- INPLANTOLOGIA
- AHO-KIRURGIA


**Ainhoa Zulueta
doktorea**

- ODONTOLOGIA
OROKORRA
- PROTESIAK
- ESTETIKA

**Susana Sierra
doktorea**

- ORTODONTZIA
- OKLUSIOA

Invisalign ortodontzia ikusezina



Incognito mihi-ortodontzia



Ortodontzia estetikoa eta ikusezina

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostegunera: 10-14 eta 16-20h / Ostiraletan: 10-14 eta 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

...eta kitto!-ren

itzulpen


zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelera,
gaztelera,
euskaratik
eta ingelesetik
euskara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.



elkartea@etakitto.com



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.050 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

IÑUN DIRANAK.- Sekulakoak, egundokoak, kristorenak. Beti pluralean erabiltzen da. "Purgak eta iñun diranak hartzen".

IÑUNDIK IÑORA.- Inola ere ez (ezezko esaldietan). "Iñundik iñora izan ezin leikian gauzia, ez batera ta ez bestera". Nola edo hala (baiezko esaldietan). "Iñundik iñora ahal badot egingo dot".

IÑUNDO.- Inon ere ez. "Gaur atara dogun arraiña, iñundo ezagutu ez dana".

ESKUTITZAK

GENERO INDARKERIAREN KONTRAKO ADIERAZPENA

Aurreko domekan Tolosan genero indarkeriaz 39 urteko Angeles Rodriguezen hilketa dela-eta, Eibarko Udaleko Berdintasunerako arloak eta Emakumearen Mahaikideek ekintza horren kontrako kondena adierazten dute eta bai hori, bai emakumeen kontrako beste edozein ekintza ezezten dute.

MIREN GALLASTEGI (EMAKUMEEN MAHAIBURUA)


ERREDAKZIOAREN OHARRA

Gobernuak ezarri nahi duen lan-erreformaren kontra atzorako deitutako grebarekin bat egin genuen ...eta kitto!-ko beharginok eta, horregatik, aste honetako aldirikaria bezperan, eguaztenean bidali zen inprimategira, betiko moduan barixakuan jasotzeko. Hori dela eta, eguazten eguerditik aurrerako gertakariak ez dute isladarik aste honetako alean, tartean grebarekin lotutako eguazten arratsaldeko zein atzoko manifestazioak. Hala ere, horien berri zein sortzen joan daitezkeen bestelako albisteen ingurukoak gure webgunean (www.etakitto.com) zein sare sozialetan (Facebook eta Twitterren) jasotzeko moduan aurkituko dituzue barixakuan.


Datorren astean, bestalde, Aste Santua dela-eta, ez da alerik izango. Hurrengo zenbakia apirilaren 13an izango duzue zuen buzoietan.



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldirikaria

asteko

2.970

datua

lagunek erabili eben Orbeako spa zerbitzua 2011an; 2010ian 2.456 erabiltzaille euki zittuan eta zabaldu barri zala 3.650 lagun pasau ziran bertatik 6 hillebeteko tartian.

Bihargiñen ordezkariaren arabera, kudeaketa desegokixa eta zorraren birfinanziazio eza dira enpresaren benetako arazua.

/ SILBIA HERNANDEZ



Alfako bihargiñen mobilizaziñuak

ALFAKO ENPRESA BATZORDIAK DEITTUTA, ZAPATUAN MANIFESTAZIÑO JENDETSUAK ZIHARKATU EBAN HERRIXA. Aurreko astian bihargiñen ordezkariak egiñ eben agerraldixan esan ebenez, "Alfako zuzendaritzak, azken lan erreformaren babesbian, soldatia %10 jaitsi nahi detse bihargineri. Neurrixak enpresaren etorkizunerako zein bertan dihardugunon lanpostuen etorkizunerako bermerik ez dau eskintzen, eta zuzendari-

Terrazen gaiñeko udal ordenantza barrixa

OIÑEZKUEN EROSOTASUNA GOGUAN, TERRAZA ETA BESTELAKUAK KALIAN bete leikien tokixaren inguruko udal ordenantza barrixa onartu eben asteleheneko udalbatzan. Taberna barruan erretzia debekatzen daberen legiaren eragiñez, taberna askok atian kupelak, mahaitxuak eta bestelakuak ipiñi dittuela ikusi dabe agintarixak eta, horregaittik, espaloietan oiñezkuendako nahikua toki libre geratzen dala ziurtatze aldera, gitxieneko baldintza batzuk jasotzen dittuan ordenantza ipiñiko dabe indarrarian. Horri jarraituta, "3 metroko zabaleria baiño gitxiagoko espaloietan ez da terrazarik ipiñiko. Oiñezkuendako libre laga biharreko pasabidiak gitxienez metro bi izango dittu zabaleran eta oiñezkuendako gordetako tokixetan, barriz, zabaleria gi-



txienez 3 metrokoa izango da. Eta ipintzen diran mahai eta bestelakuak denda eta pegoretarako sarbidiak libre laga biharko dittue". Horrekin batera, tabernako arduradunak egunero jaso biharko dittu mahai eta aulkixak eta eziñ izango dira kalia pillauta laga.

Kupel eta mahaitxo altuen kasuan, terrazak ipintzeko gitxieneko zabaleria ez dagueen espaloietan ipintzeko aukeria egongo da, beti be horretarako baimena ematen badetse. Establezimendu bakotzeko gehixen jota kupel

bi edo mahaitxo bi ipintzeko aukeria egongo da, beti be tabernaren kontra eta oiñezkuendako metro biko zabalerako pasabidia libre lagata. Hónek be egunero jaso biharko dittue.

Beste mailla batian, dendak salmentarako zein publizitaderako kalia zenbat toki bete leikien be jasotzen dau ordenantzak: Udalak baimena emon biharko detse eta, horretarako, oiñezkuendako nahikua toki libre (metro biko zabalerako pasabidia) daguean begiratuko dabe.

Maixa-k inkestia erantzutera animau nahi dittu herritarrak


MAIXA EIBARKO HERRITARREN PARTE-HARTZE MAHAIXAK, OIN DALA 3 URTE EGINDAKUAREN BIDETIK, herritarren eritxixa jasotzeko asmoz eta euren kezka nagusixak zeintzuk diran jakin nahixan inkestia preparau dau. Nahi dabena betetzeko moduan topauko dau www.maixa.org webgunian, "Inkesta: Eibar 2012an" atalian. Galdetegixa betetzeko pare bat miñutu baiño ez dirala bihar diñue Maixako ordezkariak eta apirillaren 22ra arte egongo da erantzuteko aukeria. Behin egun hori pasauta, jasotako erantzunak batu



eta estadistikak preparauko dittuela iragarri dabe, ondoren herritarren artian ezagutzera emoteko. Hirigintza, kultura, elkarbizitza, ingurumena eta bestelako kontuekin lotutako galderak osatzen dabe 12 azpiataletan banatuta daguean inkestia eta, emaitzen balixua areagotzeko, herritarrak parte-hartzera animau nahi dittue.

Eibarko Plan Estrategikua gazteleraz baiño ez dala egingo salatu dau ...eta kitto! Euskara Elkartiak

OIÑ HILLEBETE HASI ZEBAN EIBARKO UDA-LAK HERRIKO PLAN ESTRATEGIKUA BARRITZEKO LANA. Beste kultur eta gizarte eragille batzurekin batera, ...eta kitto! Euskara Elkartia prozesuan parte hartzera gonbidatu zeban Udalak, baiña, "gaztelera hutsian bialdu jakun gonbidapen gutuna. Lehelengo billerara juan giñan, halanda be, horrelakuak ez errepikatzeo eskatzeko asmuarekin", azaldu dau Igone Lamarain ...eta kitto! Euskara Elkarteko presidentiak. Lehelengo billera horretan erabilli ziran euskarri danak be gaztelaniaz idatzittakuak ziran eta billeretan parte ez hartzia erabaki dau ...eta kitto!ko Bartzar Nagusixak: "Udalarekin harremanetan jarri gara, gertautakoa azaltzeko asmuarekin; Eibarko Udalak ezin dabelako holakorik egin, baiña gaur arte ez dogu erantzunik jaso". Elkartiaren asmua



plan estrategikuaren diseñuan parte hartzia da; horretarako enpresak idatzizko ekarpenak egitteko aukera eskindu dau, baiña lehelengo Udalarekin berba egittia nahi dabe. "Eibarko Udalak ezin dau euskara albo batera laga plan estrategikua egitteko orduan eta hori eskatzen dau ...eta kitto! Euskara Elkartiak", azpimarratu dabe.


Miguel Sagastumeri omenaldixa

BARIXAKUAN OMENALDIXA JASO EBAN AURREKO ASTIAN 81 URTE BETE ZITTUAN MIGUEL SAGASTUME "EL MAGO DE URKI" SOIÑUJOLIAK, Bergarako Santa Marina parrokixan. Debagoieneko eta Bergarako musika ikastetxiak eta soiñujoliak eskindu zetsazen jardunaldi berezixan 100 bat soiñujolek "Viva México" abestixa danak alkarrekin jo eben, Urki basarrixan jaixotako soiñujoliaren omenez. Bereziki hunkigarrixa izan zan soiñua joteko tradiziñuari eutsi detsan 19 urteko bere loiba June Martinek bere lagun Joxan Goikoetxea hernaniarrarekin batera eskindutako pieza: "Bajo los techos de Paris". Sagastumek 60 urtetik gora emon



dittu erromerixa eta bestelakuak girotzen, sarrittan oiñ urte batzuk hil zan Felix Aranzabal "Angiozargo Itsua" lagun zekala. Omenaldixan Soraluze, Eskoriatza, Oñati, Bergara, Eibar, Elgoibar, Deba, Mendaro eta Ondarruko soiñujoliak jardun eben, Irungo konserbatorixoko taldiarekin batera.

Diru-laguntza hitzarmena siñatu dabe hainbat taldek



MARTITZEN ARRATSALDIAN UDALETXIAN EGINDAKO EKITALDIXAN HERRIKO HAINBAT TALDETAKO ordekarik diru-laguntzarako hitzarmena siñatu eben. Danera 40 bat kolektiborekin 69 bat hitzarmen siñatuko dirala aurreratu dabe alkatetzatik eta txanda bittan banatu dittue: aste honetan jaixen antolaketan eta kultura arluan diharduenak firmau dabe hitzarmena eta euskalgintzan eta kirol munduan diharduenak, barriz, aste santu ostian siñatuko dabe. Danera, talde guztien artian ixa 400.000 euro banatuko dittu Udalak: 113.250 euro kultura arluan erabilliko dira, 43.886 euro jaixetan, 78.399 euskalgintzan eta 164.281 kiroletan.

a u t u a n

SANJUANETARAKO POSTUAK

San Juan jaixetan kalian salmenta-postua ipiñi nahi dabenak apirillaren 30era arte eukiko dabe eskaeria presentatzeko aukeria, Pegoran. Horretarako daguan eskaera-orrixa bete eta bertan eskatzen daben dokumentaziñua entregau biharko dabe.

ASTE SANTUKO ORDUTEGIXAK

Indianokua gaztelekuak ordutegi berezixa eukiko dau Aste Santuan: apirillak 5, 6, 7, 8 eta 9xan itxitta egongo da eta 10etik 12ra, barriz, 16.30xetatik 20.30xetara zabalduko dabe. Portalea, apirillaren 5etik 9ra itxiko dabe.

PRESUEN ALDEKO EKITALDIXA

Eibarko Herrirak deittuta, eta beste herri askotan egingo dabenari jarraituta, preso politikuen eskubidiak bete deittezen eskatzeko ekitaldixa antolatu da gurian be: gaur 19.30xetan Untzaga plazan giza-kataia egingo da.

EGOAZIA

Apirillaren 31an Egoaizia Gobernuz Kanpoko Erakundeko boluntarixa bik Perura biajia egingo dabe, Udalak, Diputaziñuak eta Eusko Jaurlaritzak emondako diru-laguntzeri esker han garatzen diharduen proiektuak zelan doiazen bertatik bertara ikusteko. Bestiak beste, Eibar kirol alkartiak eta Eibar Primeran plataformak lagunduta sortutako Piurako kirol-eskolia bisitauko dabe. Hain zuzen be, azken proiektu honen gaiñeko presentaziñua egingo dabe apirillaren 19xan, 19.00etan Portalean.

250 lagunetik gora Armerixako batzarrian

ARMERIXA ESKOLAKO IKASLE OHIEN URTEROKO BATZARRA AURTEN BEREZIXA IZAN DA, ESKOLIAREN SORRERAREN MENDEURRENA betetzen dala-eta: zapatuan 250 bat ikasle-ohik, irakaslek zein eskolan bestelako biharretan jardundakua bat egiñ eben. Eurekin batera egon ziran, bestiak beste, Isabel Celaá Hezkuntza sailburua, Iñaki Arriola Etxebizitza, Herrilan eta Garraio sailburua, IK4-Teknikerako Jesus M^a Iriondo eta Alex Bengoa eta Juan Angel Balbás Debegesako zuzendaria. Goizian bertaratutako guztieri krabelin bana eman ostian, bestelako errekonozimenduak banatu zittuen eta talde-argazkixa etera eben ikastetxe kanpuan. Jarraixan egunerako bereziki



Ekitaldi berezixan bat egiñ eben ikasle-ohiak alkarrekin bazkaldu eben eskolako frontoian. / LEIRE ITURBE

zabaldu eben lorategixan piskolabisa eskindu zetsen. Eskoliak antolatutako argazkilaritza lehiaketako irabazlieri sarixak banatu ostian, Intercom Taldeko Antonio González Barrosek ekintzaillien inguruko hitzaldixa

emon eban eta, jardunaldixa biribiltzeko, frontoian danak alkarrekin bazkaldu eben. Bazkalostian, 1962ko belaunaldikueri 50. urteurreneko insiginiak eta 1987kueri 25. urteurreneko diplomak banatu zetsa-

zen. Bestalde, Aitor Arakistain Burnikerreko sortzaille eta Paris-Dakarreko pilotua eta Natividad Garcia, Dinitel 2000-ko kontseillari delegauak Armerixa Eskolaren enbajadore modura jardungo dabe.

Co-working espaziuak alokagai

DEBEGESAK BULEGUA PARTEKATZEKO AUKERIA ESKINDUKO DETSE ESKUALDEKO ekintzaille, profesional eta autonomeri, kostuak murriztu eta profesionalen arteko harremanak sustatzeko asmuari jarraituta. Co-working izeneko formula AEBetan sortu zan eta, lortutako arrakasta ikusitta, toki askotara zabaltzen jua da: eskintzen dittuen buleguak inpresoria, fotokopidora, faxa, eskanerra, internet eta harrera zerbitzua dakaz eta orduka, eguneko zein beste epe luziaguetarako alokairuan hartu leikez. Interesa dakenak 943 820110 telefonuan, ekintzaile@debegesa.com helbidian edo Facebook-en, <http://facebook.com/debabarrenaekinean> eskatu leikie lokala eta 5 urte baiño gitxiagoko enpreseri erdi preziaua kobrauko detse.



Apirillaren 27xan "Bonbardaketak 1937" liburu presentauko dau Bernardo Atxagak.

Bonbardaketaren 75. urteurrena goguan

EIBAR BONBARDATU EBELA 75 URTE BETETZEN DIRALA-ETA, EKITALDI BEREZIXAK ANTOLATU DITTUE hori gogora ekartzeko. Programaziñuan hitzaldixak, liburu aurkezpena, dantzak, musikia eta beste hainbat batu dittue. Apirillaren 21ian "Biharamuneko soka dantziak" hasiko dau programia; 25ian, barriz, Jesus Gutierrez historialarixak hitzaldixa emongo dau; bixamonian Maialen Lujanbio eta Juan Pinillaren errezitala egingo da; 27xan "Bonbardaketak 1937" liburuaren presentaziñua egingo dau

Bernardo Atxagak; eta egun berian, baiña gabaz "Itzaropena" ikuskizuna egingo da Untzaga plazan; 28xan, Andres Egiguren Orkestak, Sostoak eta Easo abesbatzak "Gernika kantata" eta Dvorák-en "Sinfonía del Nuevo Mundo" eskinduko dittue. Ekitaldixak maiatzian be segiduko dabe: maiatzaren 5ian bonbak jausi ziran tokixak eta su hartu eben herriko txokuetara bixitan juateko aukeria izango da eta, amaitzeko, maiatzaren 8xan Javier Muñozek gerra osteko berreraikuntza biharrek ekarriko dittu gogora.



Joan den eguenean egin zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak urteko batzarra. Aurten, ezohizko batzarra egin zuten lehenengo, Eusko Jaurlaritzak eskatutako aldaketa teknikoa egiteko elkartearen estatutuetan. Jarraian, 2011ko balantzea eta 2012ko aurrekontu eta proiektuak aurkeztu zituzten, kuota berriak onartu ziren eta galdera eta iradokizunetarako tartea ere izan zuten bertaratutako bazkideek.

Diru-laguntza jaitsiera nabarmena izango du ...eta kitto!-k 2012an

2011 urtea gogorra izan zela azpimarratu zuten Igone Lamarainek, Maider Aranberriek eta Koldo Mitxelenak, *“urte gogorra izan da, baina uste baino hobeto eutsi diogu. Berbetan programa indartu eta Gurasoak Berbetan zabaldu egin dugu. Gainera, transmisioaren mintegiak arrakasta izan zuen eta Debabarrena proiektua egiteko lehenengo fasea amaitu genuen”,* azpimarratu zuten.

Hala ere, balorazioa positiboa bada ere, 2012a beltzagoa dator. Dirulaguntzetan jaitsiera nabarmena izango du Euskara Elkarteak. *“Dagoeneko badakigu Eibarko Udalaren jaitsiera %10ekoa izango dela eta Jaurlaritzak esan duenez, %11ko jaitsiera aurreikusitako beharko dugu; 15.000 euro gutxiago jasoko ditugu”,* azaldu zuen Mitxelenak. Guzti horren ondorioz, 469.626 aurrekontua onartu zuen Batzarrak. Langileek ez dute KPI igoerarik izango eta aldizkariaren inprenta gastuak jaitsi egin beharko dira.

Kezkagarria da dirulaguntzen jaitsiera hori eta etorkizun hurbilean zalantzan jartzen du proiektua. Ekonomiaz berba egiteaz gain, 2012ko erronka nagusien zerrenda ere egin zuten elkarteko ordezkariak. Debabarrena proiektuaren bideragarritasuna ekainean amaituta egongo da eta orduan aztertuko du zuzendaritza batzordeak. Bide batez, elkartearen egoera aztertzen duen bideragarritasuna ere egiten dihardute, proiektuak aurrera eginez gero, zein izango litzatekeen etorkizuna aurreikusteko. Gaztedia saila bereziki landu nahi da 2012an eta Gurasoak Berbetan proiektua zabaldu eta dendariekin harremanetan jartzea nahiko luke ...eta kitto!k.

Bestalde, 2012rako bazkidetza kuota 2'40ko KPlari jarraituta eguneratzea onartu dute bazkideek. Beraz, 2012rako bazkide kuota honako hauek dira: 4'52 euro 16 urtetik beherakoentzat, 10'16 euro langabetu, ikasle, jubilatu eta etxekoandreentzat eta 40 euro beharrean dagoenarentzat.

Galdera eta iradokizunen txandan, gai bi landu ziren bereziki. Alde batetik, Eibarko Udalak egiten diharduen plan estratejikoan euskarak presentziarik ez izatea salatu zuen batzarrak. ...eta kitto!k Udalarekin bilera egiten saiatuko da, publiko egin egotera hori eta bere ekarpenak idatziz egingo ditu, beti ere euskaraz, *“euskararen legea hautsi du Udalak eta hori ez da onargarria”,* azpimarratu zen Batzarrean.

TOKIKOM sortu berri den enpresan ...eta kitto! ez egotearen arrazoa ere galdetu zuen bazkide batek, galdera eta iradokizunen tartean. Zuzendaritzaren erabakia azaltzeko orduan, hiru dira arrazoi nagusiak, zuzendaritzakideen berbetan, *“Debabarrena aztertzearen baitan gaude eta ekaina gertu izanda, bailara mailan hartu beharreko erabakia dela uste dugu, proiektuaren bideragarritasun txostena ez dugu eta enpresa berri bat sortu beharrean lan hori Topaguneak, Euskara Elkartearen Federazioak, beregain hartu beharreko lukeela pentsatzen dugu”.* Galdera egindako bazkideak Topagunearekin berriro ere gaia aztertzeko eskatu zuen eta hori aurreikusita dagoela azaldu zuen Lamarainek.

Galdera eta iradokizunen txandaren ostean, zuzendaritzarako proposamena onartu da eta, horrela, Ana Aranberriek eta Gaizka Bilbaok zuzendaritza laga ondoren, horrela geratu da zuzendaritza: Igone Lamarain (presidentea), Moisés González (presidente-ordea), Maider Aranberri (idazkaria), Marisol Uriarte (diruzaina) eta Mireia Agirrebeña, Ainara Argoitia, Isabel Arregi, Juan Barahona, Imanol Bergara, Julian Fernández, Fermin Lazkano eta Koldo Mitxelenak (bokalak).



Batzarrak 2012ko kuota onartu zituen eta maiatzean kobratuko zaizkie bazkideei. / SILBIA HERNANDEZ

Parkinsonari pulsua hartzeko biharrian

Deparkel Debabarrena Parkinson Elkarteak 2005eko otsailian jaio zuan, gaixorik eguan jendiari laguntasuna emateko eguan premiñari erantzuna emateko asmuari jarraituta. Lehelengo pausuak Ipuruako kiroledegian emon zittuan eta azken hiruzpalau urtietan Ardantzán, Udalak lagatako lokal batian dihardue biharrian, Parkinson gaixuen bizitza-kalidadia hobetzeko euren esku daken guztia egiten. Apirillaren 11n Parkinsona mundu mailan gogoratuko dala aprobetxautu, Deparkelen errealidadia bertatik bertara ezagutu nahi izan dogu.

Ardantzako etxe barrixetako bajueta-ko batian daka egoitza Deparkelek, Afagi Alzheimer Gaixuen eta Senidien Alkartekuekin batera. Horregaitik, alkarre bixak euren biharra lasai egitteko, aste-ko egun diferentietan erabiltzen ditue instalaziñuak. Nahiara Mugerza Alkarteko idazkarixak azaldu deskunez, "guk astelehen, eguazten eta barixakuetan erabiltzen dogu lokala, 16.00etan hasi eta 18.30xak bittartian. Debabarrena osorako zerbitzua eskintzen dogun arren, batez be Eibar eta Ermuko gaixuak dakaguz, 25 bat lagun. Talde bittan banatuta jarduten dabe, txandaka: batzuek lehelengo ordubetia-edo fisioterapeutarekin, relajaziño eta bestelakuetarako ariketak egiten emoten dabe eta jarraixan neuropsikologiarekin memori-xia eta errehabilitaziño kognitibua lantzeko beste ariketa batzuk egittera pasatzen dira eta alderantziz. Hortik aparte, horretarako aukeria daken gaixuak masajiak be hartzen ditue".

Alkartian, junta direktibua osatzen daben boluntari-xuak eta diru-laguntza eta bestelako bulego kontuekin arduratzen dan idazkarixa ez eze, gaixuen bizitza-kalidadiaren mesedetan biharrian jarduten daben fisio-terapeuta bat, psikologo bat eta logopeda



bat dagoz, masajistiarekin batera. Idazkarixak kontau deskunez, "Parkinsona gaixotasun neurodegeneratibua da, sintomatologixa zabalekua eta sarritan gaixuari depresiñua eta ansiedadia eragiten detse. Famili-xarendako be askotan gatxa izaten da gaixuekin bizitzia eta, horregaitik, Deparkelen senide eta inguru-kuendako jardunaldi berezixa egiten da hillian behin".

Beste gaixotasun askorekin pasatzen dan moduan, Parkinsonarekin be aurrera-pauso batzuk emotia lortu dabe azken urtietan eta gizartiandako orohar ezagunagua egiten dihardu. Edozelan be, oindio ez daka sendatzeko modurik, hortik gaixotasunaren eragiña ahalik eta gehixen murriztiaren garrantzixa: "Oso gaixotasun konplejua da. Mendaroko Ospitalian egon zan Javier Ruiz neurologuak gaur egunian Do-

**Plastikozko tapoiak
eta egunkari-aldizkarixak
batzen dihardue,
hórrek salduta diru
pixkat lortzeko asmuarekin**

nostian dihardu Parkinsonaren gaiñeko ikerketak egiten eta Deparkelen sendagille-aholkularixa da. Badago kasu batzuetan emaitza onak lortu dittuan ebakuntza berezix bat, baiña ez dau danetarako balixo. Bestalde, diagnostikua egittian gero eta jende gaztiaguak dakan gaixotasuna dala ikusten dihardue. Gerturatu jakuzenen artian, oin dala 10 urte gaixorik zeguala jakiñ eban 55 urteko lagun bat dago".



Luis Mari Oiarbide (tesorerua), Jesus Artolazabal (presidentia), Julia Anita (bokala), Daniel Conde (sekretari-xua) eta Hector Arretxe (presidenteor-dia). Bostok osatzen dabe Junta Direktibia.

Tapoiak eta aldizkarixak batzen

Deparkel.org alkartiarren webguria zabalduta Eusko Jaurlaritzak "utilidade publikua" aitortu arren, Deparkelen etorkizuna benetan kilikolo daguala esplika desku idazkarixak: "Diru-laguntzak murriztiarekin batera, aurrera egitteko larri ibilliko gara eta, egixa esateko, ez dakigu alkartiak benetan zenbateko bizi-iraupena izango daben. Krisixarekin batera, diruz laguntzen eben bazkidietako askok baja emon dabe eta, horregaitik, dirua nunbaitetik lortu ezian alkartia desagertzeko arriskua benetan hortxe dago, eta pentsatzen dogu penia izango litzakela holako

JESUS ARTOLAZABAL (Deparkeleko presidentia) "Taldian gaixotasunari hobeto egitten jako aurre"

- Zelan aillegau zihan Deparkeleka?

Neri 2002xan diagnostikau zesten gaixotasuna eta, nahiz eta ez neban depresiñorik euki, egixa da notizia jaso eta txarra dan zozer moduan hartzen dala. Nik ordurako banekan alkartiaren barri, orduan sasoiari kirodegira juaten nintzalako eta eurak be han jarduten ebelako ariketak egitten. Horregaittik, gaixotasuna nekala jakin eta eurekin bat egin bihar nebala pentsau neban segiduan. Izan be, holakueri aurre egitako orduan hobe da taldian jardutia bakarrik baiño. 2005ian edo sartu nintzan Deparkelen eta azken urtebetian presidente dihardut.



Artolazabal, lekukua pasau zetsan Jesus Astigarragarekin.

- Zeuri zelan lagundu detsu Deparkelekin bat egititak?

Ba bertan egitten ditudun artian talde-terapixak dagoz eta horretan parte-hartzen dogunok "ixiltasun paktu" modukua dakagunez, konfidantza osuarekin kontaktzen ditudugu gure kontuak, bakotxaren esperientziak danon artian konpartiduta eta batzuek bestiekin ikasten juateko. Alkartian dakagun psikologuak be asko laguntzen desku barruan ditudunak kanpora etaratzten eta horretarako aukeria eukitzia benetan eskertzen da. Hortik aparte, ariketa fikiskuekin-eta asko hobetzen dogu, ejerzizixua oso inportantia dalako gaixotasunak eragitten deskuzen mugimenduak gerarazteko.

- Gaixorik daguala jakin barri daben jende askori, baiña, ez ei jako erreza egitten alkartera gerturatzeko lehelengo pasau hori emotia. Zer esango zetsazun egoera horretan daguazeneri?

Danori pasau jakula, baiña gaixotasunari frente egin bihar detsagula eta Deparkelek horretan asko laguntzen dabela. Eta bestiak be holan pentsauko dabe, izan be normalian barrien bat etortzian pare bat astian probatzeko esaten jakon arren, iñork ez dabelako atzera egiñ, danak segidu dabe etortzen.



Nahira Mugerza alkartero idazkarixa da eta berak emon desku alkartieren egoera ekonomiko larrixaren barri.

zeozer pasatzia. Izan be, hamen egitten dana oso mesedegarrixa dala diñue etortzen diran gaixo guztiak eta hamendik kanpora ez da holakorik eskintzen".

Diru-itturri barrixak billatzen jardun ostian, euro gitxi batzuk eskuratzeko modua topau dabe: "Plastikozko tapoiak eta egunkari eta aldizkarixak batzen hasi gara, horren trukian dirua jasotzeko, horregaittik diruz lagundu ezin dabeneri laguntasuna emoteko beste bide batzuk badaguazela azaldu nahi detsagu, hain zuzen be holakuek gure alkartera ekarrirta. Edozeiñ arratsaldetan hamendik pasauta gustora hartuko ditudugu. Hortik etara geinkian dirua ez da asko, baiña behintzat zeozertarako lagungarrixia izango dala pentsatzen dogu".

publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

OTEGUI
HARATEGIA

Etxeko plater kozinatu eta aurrekozinatuak

Mobila. 652 77 25 42
Telefona. 943 82 05 24
Urkizu, 28

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29


Radio Eibar

CADENA SER

104,0 FM

Orain zaldikia (moxala)

ere badugu

TEEN-
AJEA

Uztail-abuztura begira planik ez badaukazu, Euskal Udalekuak eskaintza zabala jartzen du zure eskuetan. Garazi Urzuriaga eta Izaro Apraiz begiraleek, behintzat, gogotsu itxaroten dute bertara joateko momentua. Hango giro onaren seinale. Informazio gehiago: www.euskaludalekuak.org

GARAZI URZURIAGA & IZARO APRAIZ (begiraleak): “Umeek ondo pasatu eta balioak jasotzen dituzte”

- Zer dira Euskal Udalekuak?

Garazi: Gaur hiru etxetan (Abai-gar, Bernedo eta Goñi) banatzen diren udalekuak. 1965. urtean jarri ziren martxan, Arabako Barrian, eta diru kontuak zirela-eta, etxeak aldatzen joan ziren. 6 eta 16 urte bitarteko neska-mutilak jaso eta hainbat txandatan banatzen dituzte. Helburu nagusienak euskaraz bizitzea, euskal kultura eta hezkidetzaren lantzea eta natura zaintzea dira.

- Helburu horiek lortzeko zela-ko ekintzak egiten dituzue?

Izaro: Naturaren Eguna egiten dugu, eta hor umeek euskal mitologia, naturarekin harremana, errespetua... lantzen dute. Eguzkeraren lantzen dute hori, mendian txokoak dituztelako, zaindu eta euren moduan sentitzen dituztenak. Bestetik, Internazionalista Eguna ere egiten dugu.

G: Kulturartekotasuna lantzen dugu hor. Munduan bizi diren beste kultura batzuk ezagutzen ditugu, umeek denok ez garela berdin bizi jakiteko.

- Ez da, beraz, oportetara joatea bakarrik.

G: Ez. Ondo pasatzea bai, baina balio batzuk jasotzea ere bai.

- Zenbat denbora daramazue Euskal Udalekuan?

G: Nik sei urte daramatzat. Oraingoan koordinatzailea izango naiz gainera.

I: laz joan nintzen lehenengoz, ‘milo’ moduan. Begiraleez gain, ‘miloak’ daude udalekuan. ‘Miloak’ ‘Mil oficios’ direlakoak izango liriteke: garbitu, bazkariak, harrikoa, lagundu... egiten dutenak. Umeentzat ez gara arrotzak, eurek ezagutzen gaituzte eta eurak udalekuan egoteko besteok egiten dugun lanaren jabe egiten dira.

- Nola pasatzen duzue begiraleek udalekuan?

G: Oso ondo. Niretzat burbuila batean egotea bezala da.

I: Gainera, umeek lantzen duten guztia guk ere lantzen dugu. Gauetan batzen gara, egunean egindakoaren diagnostikoa egiten dugu, hurrengo eguna aurreikusitako jolasak egiten ditugu... guk ere umeek jasotako baloreak hartzen ditugu.

G: Horren inguruan urte osoan zehar egiten dugu lan. Talde txikitik banatzen gara, bilerak egiten ditugu... 365 egunetako kontua da.

- Umeek nola pasatzen dute?

Biak: Asko ikasten dute: euren gauzak jasotzen eta abar. Eta pozik bueltatzen dira etxera.

GAZTEMENUA
barixaku gauetan

txotxa eta
garagardoa barne

DENA
18 €
BARNE



Entsalada mixtoa edo
Bakailao tortila edo
Bakailao konfitatua

Txerri-salheskia parrillan edo
Ollasko erreka parrillan edo
Okela gisatua

(Hirurak patata goarnizloarekin)

Gaztaia, intxaurreak
eta **menbrilloa**

Ogla, ura, ardoa, garagardoa eta sagardoa


Otaola etorbidea, 3 - atzea
(Hiper Eroskiren alboan)

Iruki
Sagardotegia

Tel. 943 20 68 44

irukieibar@hotmail.com

www.irukieibar.com





Begiak zabaltzeko lankidetzeta

Ikusten ez dena ez dela sentitzen esan ohi da. Modu berean, ikusten ez ditugun gauza asko, gertatzen direnik ere ez dakigu. Horrela, milaka egoera gure begietatik at gertatzen dira eta munduarekiko gure ezjakintasuna handia dela erakusten dute.

Begiak gertaera horietan enfokatu, eta beste errealitate batzuk ezagutu eta horiek hobetzeko laguntza eskaintzeko, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Gatzteak Lankidetzan programa jarri du martxan. Euskadiko gazteen artean elkartasunaren balorea sendotzea eta garapenerako ekintzen inguruko sentsibilizazioa sortzea da ekimenaren helburua.

Programan parte hartuko duten gazteek hiru hilabete pasako dituzte (uztailetik urrira arte) garapenerako ekintzak egiten diren hegoaldeko herrialdeetan (Amerika, Asia eta Afrikan). Baina, aurretik, hainbat hautaketa fase gainditu beharko dituzte.

Bihar hasiko da izen emateko epea eta apirilaren 19an amaituko da. Lehen fase edo aurre-hautaketan, bigarren fasera pasako diren 170 lagun aukeratu dituzte horretarako eraturako batzordeak. Hautatutako gazteen izen-abizenak Gazteakera webgunean emango dira ezagutzera apirilaren 25ean. Bigarren fasean topaketa egingo dute gazteek Arabako Barrian maiatzaren 4, 5 eta 6an eta hurrengo fasera pasatuko diren 100 gazte aukeraturako dira. Hirugarrenean, bestetik, ekimenean parte hartuko duten gazteek informazio eta orientazioa jasoko dute Barrian egingo den topaketa berrian maiatzaren 12 eta 13an.



Antzerki solidarioa La Sallen

La Salle Azitainen William Shakespeare autore britaniarraren lan berritu bat ikusteko aukera egongo da gaur. 1. DBHko zenbait ikasleren laguntzarekin, 1. Batxilergoko ikasleek 'Romeo eta Julieta XXI' antzezlan eskainiko dute 12.00etan ikastetxeko ikasleentzat eta 19.00etan guraso eta ikusle guztiarentzat. Ekitaldiaz gozatzeko, 18 urtez gorakoek 5 euro eta adin txikikoek 3 euro ordaindu beharko dute.

Egintza, hala ere, ez da antzerkian amaitzen. Izan ere, La Salleren PROYDE-PROEGA Gobernu Kanponko Erakundearen bitartez, irabazien zati bat aurten gizarte behartsuenetan garatzen ari diren proiektuetara bideratuko da. Besteak beste, Argentinako Kordoba hiriko Malvinas Argentinas auzoan dagoen S. Hector Valdivieso eskolaren giza eta hezkuntza programaren hobekuntza eta handitzea bultzatuko dute.

Ekintza horrez gain, La Sallek Euskal Astea ospatu du. Adierazi dutenez, *“euskara astebeteko kontua ez denez, tantanaz tantan egunero bizi eta bete beharreko ontzi bat baizik, gure ikastetxeak urtean zehar ospatzen ditu honen inguruko ekimenak”*. Besteak beste, sukaldaritza ikastaroa, idazleekin hitzorduak eta baserriko munduaren ikuspegia entzun ahal izan dute ikasleek.

UEUK udaberriko ikastaroen eskaintza zabaldu du eta horien artean 'Kantuz eta jolastuz komunikazioa lantzen' aurkitzen da. Itsaso Arrieta kantu-irakasleak eskainiko du ikastaroa eta 20 ordukoa izango da berau (apirilaren 17, 19, 24 eta 26, eta maiatzaren 3, 8, 10 eta 17an, 17.30etatik 20.00etara).

ITSASO ARRIETA, kantu-irakaslea:

"Musikak umeen giza abileziak garatzen laguntzen du"

- Ikastaroaren txostenean agertzen denez, musika da irakasteko bide unibertsalena, jakinduria transmititzeko tresnarik garrantzitsuenetakoa. Zergatik?

Herri kantuak eta musika, orokorrean, herri baten bizitzeko modutik eta urteetan zehar egokitu zaizkion egoerei emandako erantzunetatik sortzen direlako. Musikaren bidez sentimenduak, pentsamoldeak, sententzioak... adierazten ditugu; nor bereak, baina baita herri moduan, gizarte moduan ere. Herri kantuak ezagutzeari zabalago egiten gara, eta inguruko herrien kultura baloratzen eta errespetatzen laguntzen digu, bakoitzarena ezagututa gehiago baloratzen baita besteena ere. Eta hori oso gauza inportantea eta baloratzeko modukoa da irakaskuntzan eta heziketan; orokorrean, mundu globalizatu honetan.

- Galtzen doa kantu eta jolas bidezko transmisioa?

Bai, neurri handi batean. Azken aldian, umeen heziketa eta baloreen transmisioa eskolaren esku uzten ari gara eta eten argia dago familia barruko transmisioan. Baina hezikuntzak oinarri bat baino gehiago dauka; eskola ez da oinarri bakarra, familia baita nire ustez beste oinarri sendoa.

- Transmittitzeko gain, zertarako balio dezake musikak?

Goatzeko edo disfrutatzeke, lehenengo eta behin, baina beste onura asko dauka musikak umeen garapenean. Adibidez, memoriaren kapazitatea eta kontzentrazioa lantzeko, imajinazioa areagotzeko, zentzumenak estimulatzeko eta abar. Umeak kantatzen duenean sentitu eta pentsatu egiten du, martxan jartzen ditu alde emozionala, kognitiboa, soziala eta motorra. Taldean kantatzen dutenean lotsa ahaztu egiten dute eta euren jarrera espontaneoak izaten da. Horrek giza-abileziak garatzen laguntzen die.

- Imaginatzen duzu musika bariko mundu bat?

Ez, inondik inora.

- Transmisioaren kontura bueltatuz, euskal musikak badu berezitasunik beste toki batzuetako musiken aldean?

Herri musika guztiek dute berezitasunen bat, lehen esan dudan moduan, herri bakoitzak bere bizipenak dituelako. Hala ere, gehientsuenak hari beretik doaz, pertsonen kezka oso antzekoak direlako herri guztietan.

- Euskal Herria herri musikaria dela esango zenuke?

Bai. Egoera guztiak kantatu izan ditugure herriak: jaiotzak eta heriotzak, poztasunak eta tristurak, maitasuna eta maitasun eza, jaiak, urte sasoiak, ...



- Irrati, telebista eta interneten kanpotik datorren musika asko jasotzen dugu, gero eta gehiago teknologien garapenari esker. Horrek eragina du euskal hizkuntza eta kulturaren transmisioan?


Bai, danak dauka eragina, baina horrek ez du esan nahi txarrerako denik, garapenak onurak ere ekartzen dizkiolako kulturaren transmisioari. Ona da iturri guztietatik edatea, nor garen jakinez gero.

- Nolako izango dira ikastaroaren saioak? Zer da egingo duzuen?

Ordu biko saioak izango dira, guztira 20 ordu. Oso ikastaro praktikoa eta erraz eramatekoa da. Kanta asko, kateatu eta lo kanta ikasiko dugu, bakoitzaren testuingurua, zertarako diren, noiz erabili eta euren onura umearengan aztertu. Umea jaiotzen denetik 8 urtera bitartekoak dira kantu gehienak.

Zure irribarre eta zure bizipoza
beti gurekin egongo dira.
Ikastolakoan partez.

Marta Etxenaga 2. urteurrena (2010/04/04)



EZTEIEN

gehigarria



josu torrealaday

27. zenbakia

2012ko UDABERRIko gehigarria PUBLIZITATEA: Itziar ALBIZU eta Belen ULAZA
Telefona. 943 20 67 76 / Faxe. 943 20 28 72 / publizitatea@etakitto.com




Txakea, gero eta gehiago

Gizonezkoen jantziak beti izan dira emakumezkoenak baino sinpleagoak. Gehienek traje beltza aukeratuta, gorbata eta txalekoa aukeratzea baino ez zuten, baina gauzak aldatzen hasi dira Euskal Herrian ere. Gizonezkoendako ezkontza modak gora egin du azken urteetan eta indar handiz hasi da zabaltzen txakea erabiltzeko ohitura. Sastre trajeak eta txakeak dira gaur egun gehien erabiltzen direnak.

Sastre trajeak erabilera anitz izan ditza-ke behin eztei eguna pasatuta. Askotan botoiak forroarekin joaten dira eta senargaiak, behin euren egun handia pasatuta, botoiak aldatu eta berriro erabiltzeko aukera izaten dute. Gainera, gizonezko askok eztei egunean 'disfrazatuta' egoteko beldurra izaten dute eta zenbat eta xume-agoa izan trajea, orduan eta hobeto.

Hala ere, eztei eguna berezia izanik, emaztegiak bere janzeraren bueltan duen guztia ikusita, traje berezia jartze-ko nahia handitu egin da senargaien artean. Hori dela eta, nahiz eta ezteietan

josu torrealday



oso klasikoa izan, txakea gero eta gehiago erabiltzen da.

Galtzak marra diplomatikodunak, gorbata eta txalekoa kolore desberdinetan, goi mailako ezteietan hain ohikoa izan den txakeak merkatu berria du. Zure egun handirako traje berezitua lortzeko modua da. Argi geldituko da zein den senargai, hau da, zure eguna dela.

Elegantziarekin lotu izan da txakearen erabilera beti, hori bai, protokoloa jarraitu nahi izanez gero, gogoratu gauza bat: txakea goizez ospatzen den ezteietarako baino ez da. Gauzez ezkontuz gero, hobe traje ilunera bueltatzea. Eta protokoloa jarraitu nahi izanez gero, senargaiaren etxeko gizonezkoek ere txakea jantzi beharko lukete.



**Senargaiak
eta ezkontzako
gonbidatuak
janzteko**



**PRESTATUTA
GAUDE**



Valenciaga

ZULOAGATARREN, 1 (EIBAR)




Telefona:
943 20 22 33





KANTABRIA Jatetxea

Arrate Gaina, 4
279 Postakutxa
20600 EIBAR
943 121 262
943 127 334



*Edozein
ospakizunetarako
aukera*



www.kantabriajatetxea.com

**EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK**

ARRATEKO
SANTUTEGIAREN
ondoan aurkitzen gara

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak,
zilarrezko ezkontzak, urrezko ezkontzak,
karta, enpresa bazkariak...



RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA.JATETXEA



Saineko erromantikoak oraindik ere nagusi


Emakumezkoaren egun nagusienetakoa dela esaten da askotan. Eztei eguneko antolaketa lanek denbora asko eskatzen dute eta emakumeak bereziki prestatzen duen eguna izaten da.

Soineko aukeraketa denbora askorekin egiten da. Eskaintza izugarria da eta denborarekin moda aldaketa asko izan da. Minimalismoak dekorazio, moda eta abarrean lekua lortu duen neurrian, emaztegaiei soinekoek ere joera hori jarraitu dute. Azken aldian 'vintage' irudiak ere zabalkunde nabarmena izan du eta 40. hamarkadako soinekoak berreskuraztea oso modan jarri da.

Hala ere, betiko soineko erromantikoak da na-

gusi eztei egunean. Gona zabalak eta tirantedunak dira nagusi. Modan daude 'palabra de honor', printzesa itxura eta lazoak gerrialdean. Enkajea eta bereziki gona oso zabalak, 'sirena' itxurakoak barne. Eta guzti horrekin batera, badirudi beloak berriro egingo duela gora. Azken aldian buruetako apaingarriek izandako arrakastak behera egingo omen du eta tradizioa jarraiki, beloak bueltatu da.

Zapatetan, berriz, gero eta modernoagoak dira aukeraketak. Brillanteekin, perlekin, bordatuak, plataformadunak eta "peep toe" delakoak. Takoi oso altuak; egunerokotasunetik gertu dagoen zapatagintza da, hau da, betiko saloi-zapata albo batera laga dute emaztegaiek.




ROCA
CALBETON, 16
-EIBAR-
TEL. 943 20 80 06

**Ezkontza egunerako guztia...
...ZURE ESKU!**




EZKONTZA EGUNERAKO LENTZERIA BEREZIA

BAITA BESTE EGUNETARAKO ERE

TXUKUNA
LENTZERIA MERTZERIA
EULOGIO GARATE, 1 943 821308



J. Gisasola, 2
COMERCIO DE LA MODA
VIECO
943 20 06 73



SASOIKO MODA GUZTIA
EGUN BEREZIETARAKO
EZTEIAK ETA JAUNARTZEAK
BAITA ETXERAKO ERE



Ezkontza egunean ezin hobeto jantzita egoten lagunduko dizugu

Iritsa

ARRAGUETA 9 TEL. 943 12 71 06

BlaB

Julian Etxeberria, 8 -EIBAR-

Tel: 943 20 15 46

DEPILAZIO ADIMENTSUA

LASER DEPILAZIOA

PROMOZIOA*

Zango osoak
+
Izterondoak
+
Besapeak

95€

*Zu bai adimentsua!
Orain depilatu zaitez
LASER-arekin!!!*

40€
saio eta zona
bakoitzeko

* Promozio baliagarria
5 saioko pack-a
kontratatuta

*Saioen arteko
gutxieneko tartea
bi hilabetekoa da
gutxi gorabehera*





Otordua: eztei egunaren arrakastaren gakoa

Zalantzarik ez, Euskal Herrian jendeak oso gogoko du jatea, bazkari edo afari baten bueltan milaka negozio egin direla esateko ohitura handia dago. Eztei egunari dagokionez antzerako zeozer gertatzen dela esan genezake. Biharamunean, familia edo lagunak elkartzerakoan giroa azpimarratuko dute lehenengo eta behin "oso ondo pasatu genuen" eta horrelako esaldiak behin eta berriz entzungo ditugu; baina badago, zer esan handia emango duen gaia: otordua.

Hori jakinda, ezkonberrien kezka nagusienetakoa izaten da; gauzak denboraz egiten dira, lekua aukeratu eta me-



nua prestatzen ordu asko ematen dituzte eguneko protagonistek. Menua aukeratzeaz gain, inguru osoa ere zaintzen da: menuaren aurkezpena, mahaietan egongo diren lorak, koktelerako lekua... gaur egun laguntza handia eskaintzen dute jatetxeek duten esperientzia eta hartu denbora bertako jabeekin hitz egin eta duten eskaintza ezagutzeko.

Era guztietako jakiak sartzten saiatuko gara, egun horretan asko jango dugula badakigu, baina egun bakarra da eta merezi du. Menu asko dago merkatuan, beraz denborarekin aztertu: ingurukoekin hitz egin, kontuan izan ezagunek zer duten gustoko, baina ez ahaztu ezkonberrien eguna dela, beraz, zuk gustoko duzuna eduki kontuan.



Josu torrealday

Goserik ez dugu pasatuko, ziur, baina, bereziki landu beharrekoa da otordua eta horretan laguntzeko prest izango dituzu jatetxeko jabe eta langileak. Aukeraketa ona egin, ondo pasatu egun horretan eta on egin!

Appoiainsof estudio
 C/PEREJAN 10, 48100 BILBAO
 943 51 88 58 - 679 95 08 58
 WWW.JOSUTORREALDAY.COM

fasprint
Inprimategia
Aukera zabala ezkontza gonbidapenetan eta papertegian orokorrean
 fasprintei@yahoo.es - www.imprentafasprint.es
 Ego Gain 11 ac - EIBAR - Tel./Faxa: 943 20 16 13

San Agustin, 4 943 20 16 47
MENAJEAKRISTALAOPIARIAK

Jauregui
 OPARIETARAKO IDEAK

KAFEA, TEA eta TXOKOLATEA

Ezkontza-opari originalak eta gonbidatuentzako detaileak.
KATETXO Jaunartze-opariak, urtebetetzeak eta beste ospakizun batzuk.
Julian Etxeberria, 5
 katetxo@yahoo.com
 943-257536 eta 628-330634

KIRURI
JATETXEA
Loiola auzoa, 24 AZPEITIA
 Telefonoa: 943 81 56 08 Faxa: 943 15 03 62
 E-maila: kiruri@wanadoo.es



Tel. 943 202 727
Faxa. 943 208 991
Arrate auzoa, z/g
-EIBAR-

HOTELA
JATETXEA

E-maila: conecta@hotelkrabelin.com

www.hotelkrabelin.com



Krabelin Hotela Arrateko santutegiaren ondoan dago, erreportaia egiteko txoko zoragarriaz inguratuta. Suite bi gan, jakuzgia barne, oparitzen dizkie ezkanberriei: zeremonia egunean eta hurrengoan lagela izan dezaten euren beharretarako. Aukera izango dute ere familiakoak hartzeko egongela batean eta ez dira zertan etxera bueltatu behariko argazkiak egin ondoren, gonbidatuak behin bakarrik lekuz aldatuz. Eskainitako sukalde bikaina baino berme hoberik ez dago.

Zure bizitzako pelikula





Makillajea aukeratu eta azala prestatu

Makillajeak duen garrantzia argi dago; gaur egun gizonetzkoak zein emakumezkoak makillatzen dira ezteien egunerako. Beraz, makillajea aukeratzeko orduan jakitunen eskutan jartzea ohikoa da. Hona hemen kontuan izan beharrekoetako batzuk:

- 1-Zaindu azala: heldu berri den udaberri eta udarako oso garrantzitsua da larruzala prest edukitzea, beraz, aholkurik onena ondo zainduta edukitzea da. Adibidez, azalean dituzun inperfekzioak estaltzeko ez erabili produktu gogor eta astunik.
- 2-Koloreak: kolore biziak daude modan, baina horrelakoak erabiltzea ez baduzu gogoko, lasai, 'nude' izeneko kolore asko dago eta aurkituko duzu zuretzako egokiena.
- 3-Brontzeatua: Itxura brontzeatua gogoko baduzu, erabili tonalizadore mate edo satinatuak. Eztei egunerako beharbada egokiago hau erabiltzea eta eguzkitan ez jartzea, larruzala larregi iluntzeko aukera gehiago baituzu eguzkitan jarriz gero.
- 4-Aurpegia argitzen: Zure aurpegiak argi gehiago izateko argiztagarriak dira bidea. Edozein lekutan eman daiteke eta zure aurpegiaren formaren arabera modu baten edo besteak eman behar dira, baina profesionalak erakutsiko dizute egin beharrekoa. Masaila eta bekainen ingurua argizatzea emakume guztiek egin beharko lukete.



josu torrealday

- 5-Ezpainak: Nabarmenetzea dago modan. Kolore fuksia eta korala daude modan, baina akabera matea izan behar da, ez du distira larregirik izan behar. Glossa ez da erabili behar aurtego udaberri-udan.
- 6-Begiak nabarmendu: Ezpainak larregi ez badituzu nabarmetzen, bereziki landu beharko dituzu begiak. Kolore biziak daude modan, berdea, turkesa, korala eta fuksia bereziki.

- 7-Koloreak konbinatu: Kolore gogorrak dira udaberri-uda honetan nagusi. Baina kontuz, eta konbinatu behar den moduan. Kontuan izan soinekoa, lora sorta, goiza edo gaba den. Koloreak erabiltzeko ohitura gutxi izan dugu Euskal Herrian eta modan dagoelako larregi erabiliz gero, lekuz kanpo ikusiko dugu gure burua. Egin probak, laga profesionali euren iritzia ematen eta behar den aukeraketa egiten.

Udaberriaren etorrera ospatzeko, eguneratu zaitez EN BOGA-n. Horrela esan ahal izango duzu... NICE NAIZ

BOUTIQUE Boga ESTILISTAK

Ifar kale, 6
943 702024

Bidebarrieta, 20 (Galeria Komertziala) **GIZONEZKOEN ILEAPAINDEGIA**

- Punta-puntako orrazkerak
- Ile tratamenduak

ORDUA HARTZEKO: Tel. 943 20 16 48

dbOSTON

RETRO

Ilea zaintzen profesionalak

Osasuntsu eta distira naturala

Extentsioak

Arragueta, 25
943-254512 / 943-120722

kerala Urkizu, 11 - solairuarte
Telf. 943 53 05 25
www.estetikakerala.es

- Estetika Tratamenduak
- **Makillajea** Etxean Bertan
- Manikura eta Pedikura
- **Fotodepilazioa**
- SPA Masajeak
- **Dietetika** eta **Nutrizioa**

RPS 189/09



Zezenbide, 4 www.lakett.com 943 53 00 66

OSASUNA eta EDERTASUNA *Lakett*

ESTETIKA MASAJEA

BERRIA!!!

Hipertermia kapazitiboa

LEHENENGO SAIOK ZURE ITXURA HOBETZEKO PUNTA-PUNTAOKO

ZELULEN BERRESKURAGAILU EZINHOBETA SEGURUA (kanpotik zein barrutik)

AURPEGIKOA: Lifting-a (zirugia barik) - Poltsak eta begi-zuloak - Aknea eta kuperosisa...

GORPUTZEKOA: Zelulitisa - Tonifikazioa eta nutrizioa - Bular eta besoen sendotzea - Markak - Drainatzea...

TERAPEUTIKOA: Artrosia - Artritisa - Tendinitisa - Bihurritua - Tortikolisa - Ziatikak - Giharretako mina...

ORDUTEGI JARRAITUA: 09.00-19.00 ZAPATUETAN: 09.00-13.00



SPA ORBEA
ESTETIKA & WELLNESS



Orbea Kirolegia (Urkizu, 11) Tel. 943 030 015

- Aurpegi eta Gorputz Tratamenduak
- Makillajea, Manikura eta Pedikura
- Vichy Duxta
- Fisioterapia / Masajea
- Fotodepilazioa / Foto-gazteagotzea
- Aparatologia:
 - Kabitazioa
 - Ultrasoinuak
 - Elektroterapia
 - Bibrazio-plataforma

CAPI Bidebarrieta, 5 943 201 547

Zure edertasunaren zerbitzura!

OSTEOPATIA - REFLEXOLOGIA - KIROMASAJEA

MESOTERAPIA - GEL AZAKALAK - IA BETIRAKO ESMALTATUA

AURPEGIETA GORPUTZ RADIOFREKUENTZIA - KABITAZIOA - LASER DEPILAZIOA

AURPEGIKOA FOTOGAZTETZEA - MIKRODERMOABRASIOA



Bizjñape, 1 masqueunias@gmail.com 943-257988

Uñas

- Aurpegi, esku eta oinetako tratamenduak
- Gel eta portzelanazko azakalak
- Ictioterapia (Garra-Rufa arraina)
- Depilazioa
- Makillajea...

T. Etxebarria, 24 Tel. 943 20 73 04

BITXITEGIA

MARRODAN

ERLOJUDENDA





Lorak aukeratzeko hiru estilo

Azken aldian garrantzi handia hartu du andregaiaren lora sortaren aukeraketak. Merkatuan dauden aukerak hain handiak izanda, eta kontuan izanda gaur egun loren aukeraketa ez dela eguneroko gauza, interesgarria izaten da laguntza eskatzea. Lora sorkuntzan esperientzia handia duten denda asko dago herrian eta laguntzeko prest egongo dira. Denborarekin bisitatu denda eta hitz egin dauden aukerei buruz. Hori bai, kontuan izan zure gustoaz gain, badagola bereziki garrantzia eta eragina duen faktore bat lora sorta aukeratzeko orduan: emaztegaiaren soinekoa.

Soinekoa da eguneko protagonisteko bat, baina lora sorkuntzan aditua den edonork azpimarratuko lukeen moduan, lora sorta okerrak, soineko horri ez dio askorik lagunduko. Horregatik, zure



josu torrealday

soinekoa aukeratuta, joan dendara eta hitz egin bertakoarekin. Hiru estilo nagusitan banatuko ditugu gaur eguneko lora sortak: bouquet, vintage eta minimalista.

Bouquet koloreduna da estilko klasi-

koena. Sortak ez ditu lora berdina eta kolore bakarra izan behar, baina egia da monokromoak indar handia duela azken urteetan. Burukoan ere izan dezake eragina eta baita senargaiak jantziko duen txaketaren paparhegalean.

Vintage estiloak indar handia du azken aldian, larrosekin bereziki, kolore bakarrean eta jausi handikoak izaten dira. Lore sortak indar handia izaten du eta aukeran hobe soinekoa oso xumea bada. Horrelakotan emakumeak loreak bereziki ditu gustoko eta aukeraturako lora beretzako berezia izaten da.

Minimalismoak lora gutxi erabiltzen du, ohikoena txuria asko erabiltzea izaten da eta merkatuan gaur egun dauden lorarik arraroenak (ekialdekoak eta abar) aukera desberdinak eskaintzen dituzte.

F. PASCUAL

Arane, 6
Telf. 943 20 61 64
Faxa. 943 20 85 43
20600 EIBAR



SUKALDE ALTZARIAK
BARNERAKO

VIRGINIA PASCUAL


Zubiaurre, 36 (behea)
Tel. eta Faxa: 943 17 68 28
www.cocinaspascual.com
48260 ERMUA

EZKONTZA tartak eta despedidetarako (ENKARGUZ)

ANTXON DEGUSTAZIOA

-T. ETXEBARRIA, 13-
Tel. 943 20 63 22
943 20 05 47

943 20 88 47 688 67 89 34




LORA

DENDA




Isasi, 16

943 20 33 29



San Juan, 1



Bidebarrieta, 1


Laumar

Tel. 943 20 16 26

Bidebarrieta, 28 943 20 79 73




Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu




Deixak egiñ eta mezuak bidaltzetik, telebisiñua eta bideuak ikusi, argazkixak etara, interneten nabigatu eta beste gauza asko egittera pasatu dira telefono mugikorrak urte gitxittan. Gaur egunian be, krisixak krisi, punta-puntako mugikorrak ikusten dira jendiaren eskuetan (edo belarrixetan).

Telefono mugikor barik bizi zeinke?



AMAIA TELLERIA
26 urte
langabia

Bai, trankil gaiñera. Badakat mugikorra, baiña oin lagunak 'whatsapp' eta halakuekin dabiz denpora guztian; nik ez dakat eta ez naiz ezertaz enteratzen. Lehen be, lagunekin geratzeko etxera deitzen genduan eta kitto. Begira, oin be ez dakat mugikorra gaiñan eta ez dago arazorik.




JOSU ALONSO
55 urte
bihargaña

Nik badakat mugikorra, baiña trankil biziko nintzan bera barik be, arazo barik. Gaiñan eruaten dot beti, baiña ez nago beti adi mugikorrak joko daben edo mezuak helduko jatazen.


RUBEN PÉREZ
20 urte
ikaslia

Bai, nik pentsatzen dot telefono barik bizi ahal izango nintzala, arazo barik gaiñera. Badakat telefono mugikorra, baiña ez dot pentsatzen bera barik ezingo nintzanik bizi.



M^a JESUS ARRILLAGA
60 urte
etxeoandria

Mugikorra gitxi erabiltzen dot, baiña beran lana egitten dabela begittantzen jata. Momentu puntualetan oso erabilgarrixa dala esango neuke. Adibidez, semia urrin bizi da eta berakin berba egitteko erabiltzen dot. Erosua da.



EGOITZA NAGUSIA
Bilabarrizeta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errusketako labora

Egaitzen (diger poligonoz)

Partikular, misto eta ongiak erretze zabalak

Kiooi - Eskala - Urtumoko ibilki

Eskala Herri ongi ospitalean bertan zailki

Nazioan Nazioentzako tradizioak

Mugica Ehorzketa

TELEFONOA (34 GRU) 943 201 951

F. CALBETÓN, 23
TEL. 943 53 05 26

Ogietan aukera zabala Ogi beroa

Opilak Pastelak Sanblasak

Arrautzak Esnea

Edariak Kafea

Prentsa

Egunero: 07.30-20.30 Jaiegunetan: 07.30-20.00

Hemen, kalitatea

OGI BERRI

Hierros Anetxe Rugby Taldea: hori da mailaz igotzea, hori!

LEHENDIK KANPORA-KETA NAHIKO MENPEAN IZANDA ERE, INOIZ BAINO IGOERA ERRAZAGOA izan da domekan Hierros Anetxe errugbi taldeak lortutakoa. Unben jokaturako itzulerako partiduan 87-0 irabazi zioten eibartarrek Belenos Aviléseko taldeari: entsegu mordoa eta ligako partiduetan baino garaipen argiagoa. Orain beste multzoteako txapeldunen aurkako faseari ekingo diote, maila horretako aurtengo estatuko txapeldunaren bila.



Harrobia lantzen

Eskoletako infantil taldeak, bestalde, Donostiako ATSS klubeko jokalariekin batera, asteburuan jokaturako partidu biak irabazi zituen Aieten, Gipuzkoako txapelketaren barruan. Eta alebinak Arrasaten izan ziren domeka goizean, hiru partidutan parte hartuz.



Iñigo Carmona, Jon Curiel, Iñaki Fernández, Julen Gorostidi, Iker Jauregibarria, Markel Lomana, Imanol Salazar eta Ander Sánchez izan ziren Arrasateko kontzentrazioan.



Concepto Createch play-offetik hiru puntura

GIPUZKOAKO 1. MAILAN JOKATZEN DUEN ARETO-FOBALLEKO DEBABARRENAKO ORDEZKARIAK garai-pen garrantzitsua eskuratu zuen Zurt Tabernaren kantxan. Play-offetan sartzeko dituen azken aukerei eutsiz, minutu baten faltan lortutako gol batekin 3-4 irabazi zuten Azkoitian: Alex Ruizek gol bi sartu zituen eta bana Erik-ek eta Michael-ek.

Concepto Egile talde nagusiak, bestalde, bina berdindu zuen Lizarran Area 99kin, 2-0 galtzen joan eta gero. Berdinketa horrekin, sailkapeneko 6.



Alex Ruizek gol bi sartu zituen.

postuan kokatzen dira Debabarrenakoak bihar Elgoibarko Olaizaga kiroldegian gipuzkoarren arteko derbiari aurre egiteko: Laskorain izango dute aurkari klasikoa bihurtu den lehian.

Deporreko xake taldeak maila gorenari eutsi dio

EZ DA LAN ERRAZA IZAN, BAINA AZKENEAN KLUB DEPORTIBOKO XAKE TALDEAK maila gorenari eustea lortu du Gipuzkoako Ligaren azken jardunaldian. Beasaingo Alfilekin bina berdindu zuten eibartarrek eta sailkapeneko 9. postuan amaitu dute lehiaketa. Hurrengo mugarria Donostiako Nazioarteko 35. Txapelketan izango dute Deporreko xakelariak eta, 150 jokalaritik gora hartuko duen torneoan izango da Jon Arana, Alex Aranzabal eta Jose Antonio Garrido jokalariek eta Mikel Larreategi eta Edu Olabe epaileek osatutako boskotea.

Eskolarteko txapelketa

Mogel-Isasiko Ander Magunazelaia eta Iker Marfull (Iturburu) izan dira onenak asteburu bitan banatuta jokaturako eskolarteko txapelketan. Nagusienetan Anderrek Jon Magunazelaia eta Garazi Perosanz-i hartu zien aurrea eta, txikienen mailan, Marfull Eneko Osorori eta Kepa Simoni nagusitu zitzaizen.



Iker Martínez judoka Euskadiko txapelketan izango da

LEZON ASTEBURUAN JOKATURAKO INFANTIL MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETAN, Kalamua Klubeko Iker Martínezek gure herrian jokatu den Euskadiko txapelketarako txartela eskuratu zuen. Bigarren sailkatuta, zilarrezko dominarekin bueltatu zen Eibarko judoka. Bestalde, Manu Agirre Kalamua-ko epailea Zaragozako Monzalbarba herrian jokatu den junior mailako Espainiako txapelketako fasean izango da bihar.

Santa Mariak eta Narbaizak pilotako finala jokatuko dute gaur

AURREKO BARIKAKUAN ASTELENAN ARRASATEKO GARATE ETA EGIARI 22-20 IRABAZI ONDOREN, Santa Maria (erakustaldia eman zuen) eta Narbaiza Klub Deportiboko pilotariak Udaberriko Torneoaren finala jokatuko dute gaur Zestoan, 20.45etan hasita, Hondarribiko bikotearen aurka. Bestalde, Deba Arroko Txapelketan, Unamunzaga-Bengoetxea bikoteak hiru partidua irabazi ditu: etxean Elgoibar (22-16) eta Bergara (22-13) menperatuz eta, bestea, Eskoriatzan irabaziz (22-15).

Eibarrek liderra bisitatuko du domekan 18.00etan

GIMNÁSTICA SEGOVIANARI 2-0 IRABAZI ETA GERO, JAVIER MANDIOLAREN MUTILEK NEURKETA ZAILA izango dute domekan Anduvan, Mirandésen zelaian, gaur egun zortzi puntura duen liderra gainditzeko.

Aurreko domekan husna berdindu zuten Mirandés-ek eta Ponferradinak eta horretaz baliatu zen Eibar liderrari bi puntu irabazi eta Ponferradina harrapatzeko. Del Olmo eta Bóveda zalantza dira partidurako eta taldeak zigortutako hiru jokalariren bajak izango ditu.

Bestalde, talde-zuzendaritzari dagokionez, maiatzaren 3an baztar orokorra egingo du klubak eta gaur egun dauden kontseilari gehienek, Alex Aranzabal presidentearekin batera, jarraitzeko asmoa agertuko dute.



Carlos Pouso.

8 eibartar Ermuko duatloian


ANE ZIARAN ONENA IZAN ZEN BESTE BEHIN 21 URTETIK BEHERAKOEN ARTEAN, emakumezkoen artean 5. postu absolutoarekin batera. Juan Jose Romero, bestalde, beteranoen I mailako laugarrena izan zen.

Guztira 105 parte-hartzailek amaitu zuten aurreko zapatuan Ermuan jokatutako proba eta, Eibar Triatloi Taldean, Andoni Mayo izan zen onena (29. postuan eta 1h07'18"ko denborarekin). Atzetik sailkatu ziren Romero (32.a), R. Fernández (54), Javier Murcia (60), Alberto Cid (70), Xabier Arrieta (76) eta Eduardo Cid (89).




Bihurrik bere laugarren munduko marka egin zuen Munitibarren

MARKA BERRIA EZARRI ZUEN AURREKO DOMEKAN MUNITIBARREN Ernesto ezepeleta "Bihurri" aizkolariak. Oraingoan 3 metro eta 10 zentimetroko perimetroko enborra moztu zuen eibartarrak esku bakarrarekin. Guztira 3.850 aizkorakada eman behar izan zituen lana amaitzeko eta ordubete eta ia berrogei minutu erabili zituen (1h39'45"). Agite eta Jose Lizarralde izan zituen laguntzaile eta, Bihurriren esanetan, "bikain jardun zuten. Ni ere oso ondo aurkitu nintzen domekan; aurreko lau egunak erdi gaixorik egon nintzen eta horren beldur nintzen, batez ere". Metro eta erdiko kirteneko aizkorekin lan egiteak ahalegin berezia eskatzen du: "Apurtu ere, apurtu nituen bat baino gehiago. Neurri horretako egurrak, jakina, ez dira-eta bigunak izaten; hori miraria litzateke". Ekitaldian, betiko moduan, lagun izan zuen Dioni Kortina ere eta jendeak ere gustora ikusi zuen egindako lana. Zorionak!




Asola-Berrikoen eta San Miguelekoen arteko lehia hiru-txirlotan

SAN MIGUELEN JOKATUTAKO JARDUNALDIAREN OSTEAN, BERTAN IRABAZLE izan zen Iker Izagirrek hartu du Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketaren lidergoa eta bigarren postuan sailkatu zen Asola-Berriko Sergio Rodríguez-ek jarraitzen dio puntu bakarrera. Dena dela, oraindik jardunaldi asko geratzen dira txapelketaren amaierara heltzeko; hurrengo jardunaldia bihar jokatu da, 17.00etatik aurrera, Soraluzeko Ezozian.



PAKITA BARRENETXEA URKIOLA



J.A. Mogel Ikastolako ikasle, guraso eta langileek ez zaitugu ahaztuko



Helmuga gogorragoa Valenciaga Oroitzarrean

TXIRRINDULARITZA AFIZIONATUEN ESPAINIAKO KOPAKO LASTERKETA BEREZIE-NA JOKATUKO DA BESTE BEHIN gure herrian, Valenciaga Oroitzarraren 41. edizioarekin. Berritasun garrantzitsua izango du, gainera, aurtengo probak: 164 kilometro eta erdiak osatzeaz gain, txirrindulariek ikuskizun polita eskainiko

baitute lasterketa amaieran, Bidebarrietan izan beharrean Isasiko aldapan eman beharko baitituzte azken pedalkadak. Armeria Eskolak 2012an bizi duen urteurrenaren inguruko ekitaldien barruan egin dute helmuga aldaketa. Azken metro horiek kenduta, aurreko urteotako ibilbide bera izango du domekako lasterketak eta hor



Eguraldi kaskarrari aurre eginez, Eugeny Shalimov izan zen iazko irabazlea. / MAIALEN BELAUSTEGI



Javier Ziaran eta Jose Aranberri Eibarko Txirrindularitza Elkartearen ordezkariak Armeria Eskolako Jose Luis Novoa eta Iñaki Urbietarekin irabazleari dagokion maillota erakusten.

izango dira afizionatu mailako estatuko txirrindulari onenak.

Itziar, Meagas, Elgeta, Areitio, Ixua eta San Miguel mendateak gainditu beharko dituzte partehartzaileek, tartean Ruben Fernández Espainiako Kopako gaur egungo liderra (bere taldea, Caja Rural, liderra da taldeka). Irteeran izango da ere gure herriko Debabarrena taldea.

Lau orduren bueltan

Untzagatik egingo da irteera neutralizatua goizeko 08.55-etan eta 09.00etan Azitainen izango da irteera ofiziala. Hortik Zarau-

tzeraino joko dute, handik bueltan Maltzagara heltzeko. Bertatik Bergararako bidea hartuko dute, Elgetara igo, Elorriotik jaitsi eta lehenengoan Ermutik sartuko dira gure herrian (12.00ak jota Unibertsitate Laboralean). Ixua-ko gainetik San Miguelera joko dute, Elgoibarrera jaitsi eta bigarren sarrera egingo dute Eibarren, orduan Maltzagatik (13.00a bueltan), Armeria Eskolaren aurrean kokatuko den helmugaren bila. Viejo, Gorospe, Mujika, Freire, Joaquin Rodríguez, Shalunov... Zein izango da hurrengo irabazle handia?

Euskal Herriko Itzulia Eibarren apirilaren 4an eta 5ean



Gure inguruan biltzen den zaletu-tropelak beste aukera zoragarri bat izango du profesional mailako txirrindularitzaz gozatzeko datorren aste osoan. Ixua horren lekuko da urtero.


AURTENGO AURREKONTUARI AURRE EGITEKO HAINBAT ARAZO GAINDITU ETA GERO, gure errepideetan izango da Euskal Herriko Itzuliaren 52. edizioa. Eibar, gainera, lasterketa horretako ardatzetako bat izango da, azken erlojupekoarekin batera, Arraten amaituko den etapa eta Eibartik irtenda, Ibardinen amaituko dena izango baitira erabakigarrienak, aldeaz aurretik ikusita behintzat.

Domekan Valenciaga Oroitzarrea jokatu eta hurrengo egunean, astelehenean, hasiko da Euskal Herriko Itzulia, Gueñesetik irten eta bertan amaitzeko; martitzenean, bestalde, Gueñesetik Gastei-

zera joko dute txirrindulariek. Apirilaren 4an, eguaztenean, Gasteizetik gurera etorriko da Itzulia, Arraten (17.15etan bueltan) amaituko den etaparekin: 164 kilometroko etapa horretan, ohikoa denez, Ixua eta Usartzako gainak gainditu beharko dituzte helmugara iritsi aurretik. Hurrengo egunean, apirilaren 5ean, Eibartik irtengo da tropela, arratsaldeko 13.25etan, eta Berara joko dute, han Ibardinen amaituko den etapan. Barixakuan Beratik Oñatira joango dira txirrindulariak eta, seigarren eta azken etapa, zapatuan jokatu dena, Oñati izango du protagonista, bertan jokatu baita ia 20 kilometroko erlojupekoa.



Miguel de los Toyos alkatea eta Javier Riaño Itzuliaren antolatzaileetako hitzarmena sinatzen. Eibarko Udalak iazko diru partidari eutsi dio lasterketa gurera ekartzeko. / SILBIA HERNANDEZ



XXXI. VALENCIAGA OROITZARREA (apirilak 1)



GARAILEA



MENDIA



TARTEKO HELMUGAK



23 URTETIK AZPIKO ONENA



SAIATUENAREN
SARIA



LEHENENGO
EUSKALDUNA



ARMERIA ESKOLA MENDEURRENA
SARI BEREZIA



ESPAINIAKO KOPAKO LIDERRAREN
SARI BEREZIA

TALDEKAKO SAILKAPENA: Soraluze, S. Coop. / DEBABARRENAKO ONENA: Goritz Hornikuntzak



UDABERRI SARIA
martxoak 4



ABASCAL OROITZARREA
martxoak 18



OTXOA OROITZARREA
apirilak 15



SAN JUAN SARIA
ekainak 16



PEDAL EGUNA (irailean): Birjiñape kafetegia

LAGUNTZAILEAK

- Eibarko Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Udal Kirol Patronatua
- Radio Eibar
- Izadi Loradenda
- Zirauna (Kirol Jantziak)
- Krabelin (Hotela-Jatetxea)
- Bar Tunel-Pe
- Birjiñape Kafetegia
- Ketesa
- Multiópticas
- Casa Cantabria
- Casa Galicia
- Gestilan - Aholkularitza

- Marqués de Saka Ganadutegia
- Goritz Hornikuntzak, S.A.
- Azitain Jatetxea
- Larragest Inmobiliaria / Aseguruak
- Skoda - Autos Menabi, S.L.
- Armeria Eskola
- Mapfre
- DYA - Eibar
- S.C.R.G. Bide-Alde
- S.C.R.G. Kamarroak
- Trinkete Garagardotegia
- Soraluze S. Coop.
- CDR-Bikes Eibar

- Kutxa
- Guria Elektrizitatea
- Pneumax
- Kantoi Zerbitzu Estazioa
- Oberena Harategia
- Andoni Retenaga (EBK-Eibarko Bizikleta)
- Ezpeleta Ehun-Ostalaritza
- El Castillo Hotela
- Perlakua Agroturismo-Jatetxea
- Kalitatea
- Asimair Konpresoreak
- Iruki Sagardotegia

Bihar amaituko dira XXXV. Antzerki Jardunaldiak eta horren balorazioa egiteko egon gara Juan Aldairekin (martitzenean egin genuen berba berarekin). Urteko hainbat astetan zehar Eibar estatuko antzerkiaren erdigunean kokatzen dituen ekimena izanik, pozik agertu da Aldai aurtengo edizioarekin.

JUAN ALDAI (Antzerki Jardunaldiak):

"Jardunaldiek ikuslegoaren interesari eutsi diote"

- Antzerki Jardunaldiak amaitzeaz daude. Nolako balorazioa egiten duzu horren gainean?

Jardunaldiek ikuslegoaren interes eta iritzi ona mantentzen dutela esan daiteke. Aurtengo edizioa nahiko kontinista izan da. Orain dela zazpi urte irekitako biderei jarraitu diogu. Oraindik 3 emanaldi falta dira eta goiz da datuak emateko, baina nahiz eta ikuslego kopurua txikiagoa izan, emanaldi gutxiago egon direlako, batzbestekoa iazkoa baino altuagoa izango da.

- Antzezlaren mailari dagokionez, zein iritzi duzu?

Nahiko txukuna izan da maila. Zerbait aipatzekotan, maila eta sormen gehiago erakutsi dutela talde ezezagunek ezagunek baino. Antzerkia sailkatzea zaila da. 'Komertziala', 'independientea'... kontzeptuak 90. hamarkadan garbiago zeuden, baina badaude kontzeptu ezberdinak gaur egun ere, eta uste dut aurten sormen eta sorkuntza gehiago egon dela izarrak ez diren talde horietan, izen ospetsuetan baino.

- Antzezlan gutxiago egon dira aurten, baita euskarazko obra gutxiago ere. Hala ere, jardunaldiak euskarazko lan batekin hasi eta amaituko dira.

Ezusteko bi izan ditugu. Batetik, lehenengo emanaldia oso lan duina izan zen. Jendeak espero zuena baino hobea seguru aski. Oso erakargarria. Paradoxikoa badirudi ere, azken aldian jardunaldietan egon den euskal antzezlantari jendetsuena izan zen. Ez zen antzerkia bete, baina 300 bat pertsona izan



ziren eta ez dira ohiko kopuruak. Bigarrenik, haur-antzerkia izan genuen, nagusientzat ere baliagarria zena, 'Kafka eta panpin bidaiaria'. Jardunaldietako antzezlan hunkigarrienetakoa izan zen. Oso lan duina. Oraindik euskarazko hirugarren antzezlana falta da ('Ipar haizearen kontra', bihar 20.30etan Coliseoan), baina orain artekoak oso politak izan dira.

- Goizegi izan daiteke oraindik, baina datorren urtera begira alaketak aurreikusten dituzue Antzerki Jardunaldietan?

Beti ari gara hausnarketak egiten, baina azken urte bietan hausnarketa hori lehen zegoen kalitatea eusteari bideratu dugu, kontutan edukita baliabideak urriagoak izan direla. Datorren urteari begira, gauzak pixkat egonkortzen badira, agian beste gauza batzutan pentsatzen hasi gaitzke. Aurten erabaki dugu kalitateari eustea, ikuskizun kopuruak gutxituz. Pozik gaude alde horretatik. Egoeraren arabera ikusiko dugu zer egin datorren urtean.





Udaberri festa gaztetxean

UDABERRIARI ONGI ETORRIA EMATEKO FESTA EDERRA ANTOLATU ZUTEN aurreko barixakuan Eibarko Gaztetxean. Jaia arratsaldean Untzaga plazatik abiatutako trikipoteoarekin ekin zioten, "udaberriz margotuta eta jantzita". Iluntzean, berriz, ederto dantzatu zuten MP5 taldearen erritmora eta jaia agurtu aurretik "udaberriko lore ederrena" aukeratu eta saritu zuten.

Argazki tailerrera izen-ematea

JOSÉ BENITO RUIZ NATURA-ARGAZKILARIAK "DIÁLOGOS SOBRE COMPOSICIÓN" TAILERRA emango du Klub Deportiboko Argazkilaritza taldekoek antolatzen duten Argazkilaritza Maiatzean programari jarraituta. Tailerra maiatzak 19an eskainiko da, Portalean (areto nagusian), 10.00etatik 14.00etara eta 16.30etatik 20.00etara.

Izen-ematea gaur bertan zabaldu dute eta, tailerra musutruk izan arren, parte hartu nahi duenak argazkilaritza@deporeibar.com helbidera e-maila bidali beharko du, plazak mugatuak dira-eta.



Charo Baglietto Topalekuan

GAUR HASI ETA APIRILAREN 8-RA ARTE CHARO BAGLIETTO EIBARTARRAREN MARGO ERAKUSKETA hartuko du Topalekuak. Margolanak ohiko ordutegian ikusteko aukera izango da, astegunetan 19.00etatik 21.00etara eta zapatu eta jai-egunetan 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.

Haur Liburuaren Nazioarteko eguna liburutegian


APIRILAREN 2-AN OSPATZE-KOA DEN HAUR LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGU-

NAREN HARIRA, honako jarduerak antolatu ditu Juan San Martin liburutegiak: batetik Bo-

okcrossing delakoaren inguruko tailerra eskainiko dute 16.30etatik aurrera Galtzagorri Elkartekoek (izen-ematea apirilaren 1a baino lehen egin behar da). Tailerra doan izango da. Bookcrossing-a leku publikoetan liburuak "askatzeari" deritzo eta tailerlean

parte hartzen dutenei dinamizatzaile batek azalduko dizkie horren inguruko gorabeherak. Bestalde, apirilaren 2an bertan, baina 18.00etan, Irrintzi Taldeak "Lau anaia umezurtzak" lana eskainiko du Umeen Liburutegian, Kutxak babestutako emanaldian.

Baina horien guztien aurretik eta hilero egiten den moduan, bihar Zapatuko Ipuinaren txanda izango da: Zurrumuru Antzerki Taldeak "Hain anitza, hain ederra" eskainiko du, 18.00etan Umeen Liburute-



gian. 5 urtetik gorako haurrentzat egokia den saioak 50 minutuko iraupena izango du eta sarrera doan izango da.

Txistularien kontzertua domekan

USARTZA TXISTULARI TALDEAK KONZERTUA EMANGO DU DOMEKAN, UDALETXEKO ARKUPEETAN 12.30etatik aurrera. Jose Miguel Laskurainek zuzendukoduen emanaldian joko dituzten




piezak honakoak dira: "Beti nigan gertu" (J.I. Ansorena), "Bizkor" (orripeko, J.M. Laskurain), "Pili" (Eusebio Larrinaga, arm. J.M.Laskurain), "Belar" (A. Ibarrodo), "Bendañaren etxe zaren dantza" (Enrique Aranburu), "Maria Asuncion" (P. Larruquert), "Donostia" (P. Sorozabal), "Goxokia" (Iñaki Otaño), "Getxa Goi" (Sabin Bikandi) eta "Tolosa" (Txomin Agirregomezkorta).

Indalezio Prietori buruzko erakusketa gaurtik Portalean

ESPAINIAR ZEIN EUSKAL SOZIALISMOAREN BURU NAGUSIENETAKOA IZAN ZEN Indalezio Prieto 1962an Mexikon hil zen eta, bere heriotzaren 50. urteurrenean, bere ibilbide politikoa eta figura herritarrei helarazteko asmoarekin erakusketa ibiltaria antolatu du Eusko Jaurlaritzak. Martxoaren 6an Bilbon

estreinekoz erakutsi zuten "Indalezio Prieto Euskal Politikan (1883-1962)" erakusketa gaur ailegatuko zaigu Eibarrrera, 19.00etan eta apirilaren 29ra arte Portalean ikusteko moduan izango da. Bestalde, erakusketaren harira, Juan San Martin Liburutegiak berari eskainitako interesgunea prestatu du.



laburrak

EUSKAL-DANTZA IKASTAROA

Arrate Kultur Elkartearen larrain-dantza, fandangoa eta arin-arina dantzatzeko ikasteko ikastaroa emango dute apirilaren 18an hasi eta maiatzaren 23ra bitartean, eguaztenetan 19.00etatik 20.30etara. Prezioa 12 eurokoa da bazkideentzat eta 15 eurokoa besteentzat. Izena emateko martitzen edo eguen arratsaldetan bulegora jo daiteke, 943202299 telefonora deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi.

IKASTAROAK ZIBERGELAN

Untzaga jubilatutako etxeko zibergelan Aste Santuan emango dituzten ikastaroetan oraindik toki batzuk libre daudela eman dute aditzera. Ikastaroak hauek dira: hasierakoa (14 ordu, martitzen goizetan) eta "Historias de vida" tailerra (48 ordu, taldekolan egiteko, astelehen eta eguazten arratsaldetan). Informazio gehiagorako 943701921 telefonora deitu edo ciberaulaebarr@yahoo.es helbidera idatzi.

BARRY BARREZA

Irlandan jaioetako Barry Barrez-ek urte pare bat daramatza Euskal Herrian umorezko bakarrizketak eskaintzen eta Eibarren bere ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dugu apirilaren 24an, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako saioan.

Hizkuntza Eskolaren Kultur Astea

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK, URTERO EGIN OHI DUENARI JARRAITUTA, AURTEN ERE hainbat jarduera antolatu ditu Kultur Astearen barruan, ikasleek eta animatzen diren beste guztiek klasetik kanpora bertan ematen dituzten hizkuntzak praktikatzeko aukera edukitzeko. Astelehenean ekin zioten programazioari, eskolan bertan frantsesez eskaini zuten hitzaldia-ekin. Martitzenean, berriz, ingelesa izan zen ardatza, Dsubstitutes taldeak Portalean eman zuten kontzertuan. Eguaztenean saio bikoitza izan zen, atzorako deitutako greba



Dsubstitutes taldeak bertsoak eskaini zituen ingelesari eskainitako emanaldian. / SILBIA HERNANDEZ

orokorra dela-eta, egun horretarako antolatuta zegoen hitzaldia eguaztenean aurreratu zuten-eta. Horrela, alemanieraz "Klein, aber fein!" izenburuko

hitzaldia eman zuen Alexi Hoferrrek Portalean eta 18.30etan, berriz, "Lurra, Lurra" euskerazko ikus-entzunezkoarekin agurtu zuten programazioa.


Ederto ibili ziren kantu-jolas tailerrea



AURREKO BARIXAKU ARRATSALDEAN ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAN EGIN ZEN EUSKAL KANTU ETA JOLAS

tailerrea parte hartu zuten guraso zein umeek ondo baino hobeto pasatu zuten. Esti Gonzálezek gidatutako tailerrea hainbat jolasetan jarduteko kantuak ikasi eta momentuan praktikatzen ibili ziren. Saioa Gurasoak Berbetan programaren barruan antolatu zuen ...eta kitto!-k.

Bertso bazkaria Legarreko jai-batzordearen eskutik

LEGARREKO JAI BATZORDEA OSATZEN DUTEN ARRAJOLAPE KULTUR ELKARTEKOEK iraile-rako giroa berotzen hasi dira eta apirilaren 21erako bertso bazkaria antolatu dute, Legarre Gain elkar-

 tean. Parte hartuko duten bertsolariak Felipe Zelaieta, Juan Mari Juaristi eta Alberto Martinez gasteiztarrak eta Mikel Arrillaga eibartarra izango dira eta menua, berriz, honakoa: patatak saltza berdean, oilasko erreka, postrea, kafea eta kopa. Txartelak Legarreko Parra tabernan eta Bolintxo okindegian ipini dituzte salgai, 20 eurotan.

DORI BRAVO VICENTE

(MODESTO BASTARRIKAREN EMAZTEA)


5. URTEURRENA

ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN.




laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, ANDER Egurrola, martitzenian hamahiru urte egin zenduazelako. Laztan haundi bat etxeko guztien partez.




Zorionak, JÜRGEN Aizpun Aragón, harahegun bost urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Ongi etorri, LUKEN Calderón Azcunaga. Aitatxo, amatxo, Aimar eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NAHIA, gaur hiru urte egitten dozuz-eta. Munduan dagan onena zara! Maitte zaittugu!



Zorionak, JULEN, domekan hamar urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, MARTINA, bixar urtebete egingo dozu-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, IMANOL, gaur urtiak betetzen dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixa, lagunena eta, batez be, Albaren partez.



Zorionak, MAITE, astelehenian 11 urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi-haundixa aitta, ama, Mikel eta Maialenen partez.



Zorionak, IZARO, gure potxola. martitzenian lau urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IONE Arritokieta Martínez, domekan bost urte egingo dozuz-eta. Etxekuen partez.



ELENE eta MADDALEN: Gure bizitzen poza zarielako, ZORIONAK!

JAIOAKOAK

- Julen Blasco Azpeitia. 2012-III-13.
- Aritz Mekolalde Chávez. 2012-III-16.
- Paul Carrasco Hernáez. 2012-III-16.
- Luken Calderón Azkunaga. 2012-III-19.
- Markel García Aristondo. 2012-III-20.
- Naia González Valenzuela. 2012-III-21.
- Alejandro Aja Roja. 2012-III-22.

HILDAKOAK


- Piedad Hernando Postigo. 87 urte. 2012-III-20.
- Luisa Cortecero Mena. 95 urte. 2012-III-21.
- Vicente Elkoro-Iribe Unzeta-Barrenetxea. 90 urte. 2012-III-21.
- Jesusa Bilbatua Sarasketa. 85 urte. 2012-III-22.
- Jose Taboada Figueras. 64 urte. 2012-III-24.
- Oier Díaz Gordo. 9 hilabete. 2012-III-24.
- Pakita Barrenetxea Urkiola. 77 urte. 2012-III-27.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
30ean: 22.30
31n: 17.00, 19.45
(ANTZOKIAN)
1ean: 17.00

"Lorax"

Zuzendaria: Chris Renaud



(1 ARETOAN)
31n: 22.30
1ean: 17.00, 20.00
2an: 20.30

"Moneyball"

Zuzendaria: Bennett Miller



(2 ARETOAN)
30ean: 22.30
31n: 19.45, 22.30
1ean: 20.00
2an: 20.30

"Intocable"

Zuzendaria: Eric Toledano



(ANTZOKIAN)
30ean: 22.30
1ean: 20.00
2an: 20.30

"Los idus de marzo"

Zuzendaria: George Clooney



(2 ARETOAN)
31an: 17.00
1ean: 17.00

"Blancanieves"

Zuzendaria:
Tarsem Singh



horoskopoa

ARIES

Hainbeste denboran itxaron dituzun oporrak heldu dira. Egia esan, ederki aprobetxatuko dituzu. Beste aurpegi batekin bueltatuko zara ondoren.

TAURUS

Pasio asko izango duzu Aste Santuan. Kontuz, pekaturik ez egin! Txantxa da. Zoragarri pasako dituzu, luzaroko ahaztuko ez duzun sasoiak.

GEMINI

Aste Santuko oporrak ez dira zuk aurreikusitako bezalakoak izango, baina ez kezkatu, ondo pasatuko duzue eta: bitxiegiak izango dira.

CANCER

Pentsatu ere ezin dituzun gauzak gertatuko zaizkizu Aste Santuan. Egoera bitxiak, barregarriak, dibertigarriak eta baita sutuak ere.

LEO

Lagun berri asko egingo dituzu hurrengo egunotan eta konturatuko zara adiskidetasunak duen balioaz. Zure pentsaera zabaldu egingo duzu.

VIRGO

Osasuna ez duzu lagun izango Aste Santuan. Penagarria izango da, gozatzeko moduko plan zoragarriak egingo baitituzte ingurukoek.

LIBRA

Katu beltz bat pasatu da zure aurretik? Dena oker irteno zaizu hurrengo egunotan, baita alde dituzun gauzak ere. Tira, animo!

SCORPIUS

Gaizki hasiko dituzu Aste Santuko oporrak, baina modu ezin hobean amaituko dituzu. Momentu bakoitza aurrekoa baino hobea izango da.

SAGITTARIUS

Norbait berezia ezagutuko duzu datorren astean eta bizitza aldatuko dizu. Ikusten duzun momentuan bertan jakingo duzu zein den.

CAPRICORNIUS

Gau txarra pasatuko duzu bihar, baina lasai, Aste Santuko oporrak zoragarriak izango baitira. Ahoan irribarrea eramatea da kontua!

AQUARIUS

Mundu berri bat ezagutuko duzu, zegoenik ere ez zenekiena. Hemendik aurrera, hori sakonago deskubritzea izango da zure nahia.

PISCIS

Dena txarto dagoela iruditzen zaizu: eguraldia, konpainia... Zergatik ez duzu jarrera aldatzen? Positiboagoa izateak lagunduko dizu bizitzan.

Barixakua 30

GIZA-KATEA

19.30.- Presoen eskubideen aldeko giza-katea, Eibarko Herrirak deituta. Untzagan.

Zapatua 31

ZAPATUKO IPUINA


18.00.- "Hain anitza, hain ederra" ipuin-kontalari saioa, Zurrumurru Antzerki Taldearen eskutik. Sarrera doan. Umeen liburutegian.

ZINE-EMANALDIA

18.00.- "Salvaje". El Corte Inglés-ean.

ANTZERKIA

20.30.- "Ipar haizearen kontra", Tanttaka Teatroa. Sarrera: 11 euro. Coliseoan.



KONTZERTUA

00.00.- Funk Off! Get down to the soul room. Koskor tabernan.

Domeka 1

TXIRRINDULARITZA

08.55.- XLI Valenciaga Memoriala. Untzagatik. Helmuga Armeria Eskolan, 13.30ak inguruan.

KONTZERTUA

12.30.- Txistu kontzertua: "Beti nigan gertu" (J.I. Ansorena), "Bizkor" (orripeko, J.M. Laskurain), "Pili" (Eusebio Larrinaga, arm. J.M.Laskurain), "Belar" (A. Ibarondo), "Bendañaren etxe zarean dantza" (Enrique Aranburu), "Maria Asuncion" (P. Larruquert), "Donostia" (P. Sorozabal), "Goxokia" (Iñaki Otaño), "Getxa Goi" (Sabin Bikandi) eta "Tolosa" (Txomin Agirregomezkorta. Usartza Txistulari Taldearen eskutik. Udaletxeko arkupeetan.

GAZTELEKUA

17.00.- Play Wii. Indianokua gaztelekuan.

Astelehena 2

IKASTEN

16.00.- Sendabelarren Foroa: Egurdillia eta astamahats ale-beltza. Portalean.

HAUR LIBURUAREN EGUNA

16.30.- Bookcrossing tailerra. Liburutegian.
18.00.- Txotxongiloak: "Lau anaia umezurtzak", Irrintzi Taldearekin. Umeen Liburutegian.

Eguaztena 4

IKASTEN

09.55.- Udal artxibategia ezagutzeko bisita. Batzeko tokia: udaletxeko arkupeetan (aldez aurretik izena eman dutenentzat).

TXIRRINDULARITZA

17.15.- Euskal Herriko Itzuliaren 3. etaparen amaiera Arraten (hasiera Gasteizen, 13.05etan).

GAZTELEKUA

18.00.- Play Wii. Indianokua gaztelekuan.

Eguena 5


TXIRRINDULARITZA

13.25.- Euskal Herriko Itzuliaren 4. etaparen hasiera Untzagan (amaiera Ibardinen, 17.16etan).

Eguaztena 11

IKASTEN

11.00.- Kafe-tertulia: Medikuntza alternatiboa. Klub Deportiboan.




SUDOKUA

	5			8	4	7
		9		1		6
2			7			
	9		4	2		
	2				1	
			9	3		8
				4		5
7			3		6	
9	1		6			7

DENBORAPASAK

1	7	4	8	3	2	6	8	4
6	8	3	7	1	4	2	9	3
4	3	2	5	9	6	8	1	7
2	1	7	9	8	3	4	6	5
3	0	4	2	7	5	1	0	0
0	5	0	4	6	1	7	3	2
0	2	8	1	5	7	9	4	6
7	9	6	0	4	8	5	2	1
5	4	1	6	2	9	3	7	8

AURREKOAREN EMATZA



erakusketak

– Martxoaren 31ra arte

JUAN IGNACIO AIZPURUAren "Lehen urratsak" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

JOSE LUIS MARTINEZen "Bardeak" argazki erakusketa. *El Ambigü kafetegian.*

"BALENTZIAGA OROITZARREA. Ixuako mendatea" argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*

IKER IGLESIASen "Txina" argazki erakusketa. *Debegesan.*

"EMAKUMEAK: NOBEL SARIAK" informazio-topagunea. *Juan San Martin liburategian.*

– Apirilaren 1era arte

SUSANA JODRAren "Taldeko mugimendutik bakardadeko gelditasunera". *Portalean.*

– Apirilaren 4ra arte

EINER RODRIGUEZ PONCEren "Argazki diseinua. Irudi digitala". *Untzagako jubilatutxuean.*

– Apirilaren 8ra arte

CHARO BAGLIETTOren margo erakusketa. *Topalekuan.*

– Apirilaren 30era arte

JOSE VILAren "Aratosteak" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

JOSE LUIS IRIGOIENen "Aratosteak" argazki erakusketa. *El Ambigü kafetegian.*

ASIER ARANZABALen "Mongolia" argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*

lehiaketak

– **Haurrentzako I. Ipuin Lehiaketa.**

Norentzat: 8 eta 12 urte bitartekoentzat, euskeraz eta gaztelera. Informazioa eta lanak entregatzea: *Apirilaren 14ra arte*, El Corte Inglés-en.

– **Ixua-Valenciaga Memoriala argazki-lehiaketa.**

Informazioa eta lanak entregatzea: *Maiatzaren 4ra arte*, Elbarko Txirringularen Elkartearen (Pagaegi, 3 behe), cce@clubciclistaeibarres.org.

– **Sanjuanak 2012 Kartel Lehiaketa.**

Informazioa eta lanak entregatzea: *Maiatzaren 11ra arte*, Pegoran.

farmaziak

30, barixakua

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

31, zapatua

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

1, domeka

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

2, astelehena

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

3, martitzena

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

4, eguaztena

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostotarren, 10)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

5, eguena

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

6, barixakua

EGUNEZ **Las Heras Laramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

7, zapatua

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

8, domeka

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

9, astelehena

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

10, martitzena

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

11, eguaztena

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

12, eguena

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

13, barixakua

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

telefono jakingarriak

SOS delak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisia salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukalde, komun bi eta trasteroa. Ilogailuarekin. 130 m². Guztiz berritua eta argitsua.. Tel. 626-203838.

– 22 m²ko terraza duen 84 m²ko atikoa salgai Eibar erdialdean. Berria. Garajea eta trasteroa aukeran. 260.000 euro, BEZ-a eta guzti. Tel. 647-952677.

– Pisia salgai T. Etxebarria kalean. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Oso argitsua eta aukera askorekin. Tel. 659-208746.

– Pisia salgai. Logela bi, egongela, sukalde, komuna eta ganbara. Kalefakzioarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 156.263 euro, negoziagarriak. Tel. 695-851722.

– Pisia salgai Amañako plazoletan. 2 gela, egongela, sukalde, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. 100.000 euro. Tel. 685-728995.

1.2. Errentan

– Conilen "Playa El Palmer" etxea alokagai, abuztuan izan ezik. Hondartzatik 500 metrora. Logela bi, lorategia eta parking-a. Merke. Tel. 607-310266.

– Pisia alokagai Bidebarrieta 28an. Tel. 652-764566.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Renault Scenic autoa salgai. Gasolina. 2009ko irailean matrikulatuta. 43.000 km. Tel. 605-721711.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garajea salgai Bittor Sarasketan. Tel. 617-742848.

3.2. Errentan

– Martxan dagoen ostalaritza negozioa salgai. Tel. 616-664880.

– Neska talde batek lokal bat hartuko luke alokairuan, bainuarekin. Eibarren, Urkizu aldean ahal bada. Tel. 697-532570.

– 60 m²ko lokala (zatigarria) alokagai Otaola hiribidean. 24 urteik gorako koadrilentzat eta musika-taldentzat egokia. Tel. 681-303507.

– Garajea alokagai Arrate-Biden. Itxia, behe solairuan eta garbitegiarekin. 90 euro. Tel. 679-310083.

– Lokala alokagai Ubixta kalean. 100 m². Behe solairuan. Irteera zuzena kalera. Tel. 617-688311. Maria.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauek PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Mutil euskalduna eskaintzen da kamarero jarduteko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 696-496427 eta 943-200939. Javier.

– Neska eskaintzen da etxeak edo pegorak garbitzeko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 646-323154.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 666-771151.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 669-513926.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 660-164576.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interno. Tel. 659-776622.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuetan edo orduka. Tel. 610-992855.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 617-126144.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 602-116350.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 689-798284.

– Neska eskaintzen da 20.00etatik 08.30etara nagusiak zaintzeko. Tel. 634-007292.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 690-925929 eta 943-531378.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 602-109323.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 676-244793.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-784360.

– Mutila eskaintzen da lantegiak garbitzeko, txofer edo banatzaile jarduteko eta okindegian lan egiteko. Tel. 689-286167.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 649-770161.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 636-581194.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 619-041821.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-665395.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-571210.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-910182.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Externa. Tel. 943-029329.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 943-257684.

– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 633-150376.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 690-134485.

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, kamarera edo sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-052084 eta 943-257815.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-052165.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 683-562630.

– Mutil arduratsua eskaintzen da kamarero jarduteko, nagusiak zaintzeko eta igeltsero lanak egiteko. Tel. 692-332871 eta 943-257815.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 690-861846.

– Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 635-237518.

4.2. Langile bila

– Ostalaritza apendiz behar da (30 urteik behera). Kontratua eskainiko zaio. Eibarko 150 postakutxa.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Atzerriko Hizkuntzan diplomatutako mutila eskaintzen da LH eta DBHko klase partikularrak emateko. Tel. 651-503971.

– Psikologian eta Psikopedagogian lizentziatuak klase partikularrak ematen ditu. Tel. 628-591462.

– Ingeniaritza titulodun neska eskaintzen da klase partikularrak emateko. Tel. 670-251265.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Sofa salgai. Narruzkoa eta beige kolorekoa. 1'5 metrokoa, bi lagunendako aproposa. Borondatea jasoko genuke. Tel. 652-759077.

– Jatetxea itxi dugula-eta, hainbat artikulu saltzen ditugu, karpa bat, erakustokia, itozte-makina tartean (oinarriko makinaria ez). Tel. 616-664880.

6.2. Eman

– 3 hilabeteko txakurkume emarentzako etxe on bat behar dugu. Txertatua. Arraza txikiakoa. Pisu batean bizitzeko aproposa. Doan. Tel. 615-756155. Iñigo.

euskararen transmisioa

MINTEGIA

2012ko
maiatzak 8
astearta

egitaraua

EIBAR
Portalea
Kultur Etxea

- 08,45- 09,00: Akreditazioa eta dokumentazioa.
09,00- 09,35: Ongi-etorria.
09,40- 10,25: "Transmisioaren kontzeptuarekin bueltaka. Begirada bat gizarte antropologikotik".
(Jone M. Hernandez. Gizarte Antropologian doktorea eta EHUko irakaslea)
10,30- 10,55: "Eman giltza: hizkuntza transmititzeko modurik naturalena."
(ALKARBIDE, Bizkaiko euskara zerbitzuen bilgunea)
11,00- 11,25: "Irungo familietan euskararen ondorengoetaratzea sendotzeko plana".
(Irungo Euskara Zerbitzua)
11,25- 11,45: ATSEDENA
11,50- 12,20: "Familia barnetegiak"
(AEK)
12,25- 13,10: "Hizkuntza sustatzeko tailerra, gure esperientzia".
(Gemma Sanginés. Psikologoa. Tallers per la Llengua-ko bokala.)
13,15- 15,00: BAZKARIA
15,05- 16,00: "'Gurasoek nola, umek hala?' eta hurrek euskaraz egitea zertan datzan argitzen lagunduko diguten beste galderak".
(Paula Kasares Soziolinguista. NUPeko irakasle elkartua.)
16,05- 17,40: Mahaingurua: "Transmisioa: denon erronka".
(Moderatzailea: Jaime Altuna, Urtxintxa eskolako hezitzailea)
17,40- 17,45: Agurra.

Antolatzailea:



Euskara Elkartea

Babeslea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia

INFORMAZIOA
ETA IZEN-EMATEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea
943-200918
normalizazioa@etakitto.com





MONUMENTU ARTISTIKOA




LASA JATETXEA

*250 LAGUNENDAKO
JANGELA*



El Diario Vasco
"Más gastronomía"
Sariaren irabazlea
2009an,
BANKETEETAKO
GIPUZKOAKO
JATETXE
ONENA moduan.



*ERA GUZTIETAKO BANKETEA
ospatzeko toki bikain batean*

Ozaeta Jauregia

Tel. 943 76 10 55

Faxa: 943 76 20 29

www.restaurantelasa.es

BERGARA

